

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA
ZERBITZU-KONTRATU HAU ARAUTZEKO: “ELORRIKO HAURRESKOLAK ERAIKINA
ERABERRITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA IDAZTEA, KANPO ALDEAREN ERREFORMA
BARNE (PATIOA), E1_DEF. PROTOTIPOAREN ARABERA”. PROZEDURA IREKI BIDEZKO
ESLEIPENA

AURKIBIDEA

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES	¡Error! Marcador no definido.
CAPÍTULO I. Régimen jurídico	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 1. Régimen jurídico.	¡Error! Marcador no definido.
CAPÍTULO II. Del órgano contratante.	4
Cláusula 2. Órgano de contratación.....	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 3. Responsable del contrato.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 4. Unidad encargada del seguimiento y ejecución del contrato.	¡Error! Marcador no definido.
CAPÍTULO III. Del contrato	5
Cláusula 5. Objeto y necesidad del contrato.....	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 6. Valor estimado.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 7. Presupuesto base de licitación y precio del contrato.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 8. Existencia de crédito	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 9. Plazo y lugar de ejecución.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 10. Prórroga del contrato.	6
Cláusula 11. Condiciones especiales de ejecución.	7
Cláusula 12. Revisión de precios.	¡Error! Marcador no definido.
CAPÍTULO IV. De la licitadora	8
Cláusula 13. Aptitud para contratar.....	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 14. Clasificación y solvencia.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 15. Integración de la solvencia con medios externos.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 16. Concreción de las condiciones de solvencia.	10
CAPÍTULO V. Del procedimiento de adjudicación.	¡Error! Marcador no definido.
Sección primera. Del procedimiento y criterios de adjudicación.	10
Cláusula 17. Procedimiento.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 18. Publicidad.....	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 19. Criterios de adjudicación.....	¡Error! Marcador no definido.
Sección segunda. De las garantías	11
Cláusula 20. Garantía provisional.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 21. Garantía definitiva.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 22. Devolución y cancelación de la garantía definitiva. ...	¡Error! Marcador no definido.
TÍTULO II. LICITACIÓN DEL CONTRATO	13

CAPÍTULO I. De las proposiciones.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 23. Presentación de proposiciones.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 24. Forma y contenido de las proposiciones.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 25. Calificación de la documentación presentada, valoración y apertura de proposiciones.	¡Error! Marcador no definido.
CAPÍTULO II. De la propuesta de adjudicación, adjudicación y perfección y formalización.	18
Cláusula 26. Efectos de la propuesta de adjudicación. Decisión de no adjudicar o celebrar el contrato y desistimiento del procedimiento de adjudicación por la Administración.	18
Cláusula 27. Adjudicación del contrato.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 28. Perfección y formalización del contrato.	¡Error! Marcador no definido.
TÍTULO III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO.	24
CAPÍTULO I. Derechos y obligaciones de la contratista.	24
Sección primera. De los abonos a la contratista	24
Cláusula 29. Valoraciones y abonos.	¡Error! Marcador no definido.
Sección segunda. De las exigencias la contratista.	26
Cláusula 30. Obligaciones, gastos e impuestos exigibles a la contratista.	¡Error! Marcador no definido.
Sección tercera. De las disposiciones laborales y sociales y de transparencia / Igualdad / Materia Lingüística.	26
Cláusula 31. Obligaciones laborales, sociales y de transparencia / Igualdad / Materia Lingüística.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 32. Información sobre las condiciones de subrogación en contratos de trabajo. ..	¡Error! Marcador no definido.
Sección cuarta: De la confidencialidad y protección de datos de carácter personal	28
Cláusula 33. Deber de confidencialidad.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 34. Protección de datos de carácter personal.	¡Error! Marcador no definido.
Sección quinta. De los seguros y responsabilidades por daños	29
Cláusula 35. Seguros.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 36. Responsabilidad de la contratista por daños y perjuicios.	¡Error! Marcador no definido.
CAPÍTULO II. De la cesión y subcontratación.	30
Cláusula 37. Cesión del contrato.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 38. Subcontratación.	¡Error! Marcador no definido.
CAPÍTULO III. Ejecución del contrato	32
Sección primera. Del riesgo y ventura.	32
Cláusula 39. Riesgo y ventura.	¡Error! Marcador no definido.
Sección segunda. Del cumplimiento del contrato.	32
Cláusula 40. Programa de trabajo.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 41. Trabajos defectuosos o mal ejecutados.	¡Error! Marcador no definido.
Sección tercera. De la subsanación de errores, indemnizaciones y responsabilidades en el contrato de elaboración de proyectos de obras.	33

Cláusula 42. Subsanación de errores y corrección de deficiencias.....	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 43. Indemnizaciones por desviaciones en la ejecución de obras y responsabilidad por defectos u errores del proyecto.....	¡Error! Marcador no definido.
Sección cuarta. Del cumplimiento del plazo y penalidades por demora	34
Cláusula 44. Cumplimiento del plazo y penalidades por demora. .	¡Error! Marcador no definido.
Sección quinta. De la modificación y suspensión del contrato.....	35
Cláusula 45. Modificación del contrato.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 46. Suspensión del contrato.....	¡Error! Marcador no definido.
CAPÍTULO IV. Extinción del contrato.	36
Sección primera. De la resolución del contrato	37
Cláusula 47. Resolución del contrato.....	¡Error! Marcador no definido.
Sección segunda. De la realización de los servicios	37
Cláusula 48. Forma de presentación.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 49. Realización de los servicios y entrega de los trabajos	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 50. Recepción y liquidación.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 51. Propiedad de los trabajos.	¡Error! Marcador no definido.
Sección tercera. Del plazo de garantía	39
Cláusula 52. Plazo de garantía	¡Error! Marcador no definido.
Sección cuarta. Prerrogativas y facultades de la Administración y Recursos	40
Cláusula 53. Prerrogativas y facultades de la Administración.	¡Error! Marcador no definido.
Cláusula 54. Recursos	¡Error! Marcador no definido.
ANEXO I. CARACTERÍSTICAS DEL CONTRATO.....	¡Error! Marcador no definido.
ANEXO II. MODELO DE PROPOSICIÓN ECONÓMICA	¡Error! Marcador no definido.
ANEXO III. MODELO DE GARANTÍAS EN LOS PROCEDIMIENTOS DE CONTRATACIÓN MODELO DE AVAL.....	¡Error! Marcador no definido.
ANEXO IV. MODELO DE GARANTÍAS EN LOS PROCEDIMIENTOS DE CONTRATACIÓN MODELO DE CERTIFICADO DE SEGURO DE CAUCIÓN.¡Error! Marcador no definido.	no definido.
ANEXO V. MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE RELATIVA A HALLARSE AL CORRIENTE DEL CUMPLIMIENTO DE LA OBLIGACIÓN DE CONTAR CON UN DOS POR CIENTO DE TRABAJADORES Y TRABAJADORAS CON DISCAPACIDAD O ADOPTAR LAS MEDIDAS ALTERNATIVAS CORRESPONDIENTES Y AL CUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES ESTABLECIDAS EN LA NORMATIVA VIGENTE EN MATERIA LABORAL, SOCIAL Y DE IGUALDAD EFECTIVA ENTRE MUJERES Y HOMBRES.....	¡Error! Marcador no definido.3
ANEXO VI. MODELO DE COMPROMISO PARA LA INTEGRACIÓN DE LA SOLVENCIA CON MEDIOS EXTERNOS'	¡Error! Marcador no definido.5

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

“ELORRIKO HAURRESKOLAK ERAIKINA ERABERRITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA IDAZTEA, KANPO ALDEAREN ERREFORMA BARNE (PATIOA), E1_DEF. PROTOTIPOAREN ARABERA” ZERBITZU-KONTRATUA. PROZEDURA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA. Araubide juridikoa

1. klausula. Araubide juridikoa

Kontratu hau administratiboa da, azaroaren 8ko 8/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearena, 25 artikulua xedatzen duenarekin bat, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean SPKL). Alderdiak, berariaz, baldintza-agiri honetan eta dagokion preskripzio tekniko partikularrei buruzko agirian ezarritakoaren mende garatzen dira.

Baldintza-agiri biak kontratu izaera dute, beraz sinatu egin beharko dira, esleipendunaren adostasun-froga gisa, kontratua formalizatzen den egintza berean.

Baldintza-agirietan aurreikusi ez denerako maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretura joko da urriaren 30eko 30/2007 legea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen zati bat garatzen duena (817/2009 ED); urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (APKLAO), aurreko guztiaren kontra ez dagoen guztian.

Edozein kasutan, SPKLaren kontra ez dagoen guztian, aurrean aipatutako lege eta erregelamendu arauak ezarriko dira.

Ordez, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak ezarriko dira, eta halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

II. KAPITULUA. Organo kontratatzailea

2. klausula. Kontratazio-organoa

SPKLaren 61 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratu alorreko sektore publikoko erakundeen ordezkari pertsona bakarreko edo kide anitzeko kontratazio-organoei dagokie, legezko edo erregelamenduzko edo estatutu xedapen arau baten arabera, bere izenean kontratuak egiteko ahalmena badute.

SPKLaren bigarren xedapen gehigarriak xedatzen du, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzekoa, 121 artikulua aipatzen duen biztanleria handiko udalerrietan kontratazio-organoaren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari dagozkiola kontratuaren zenbatekoa edo iraupena zein den bardin izanik.

Aurrekoaren esandakoaren kaltetan barik, kontratazio-organoek gai honekin lotutako eskumenak eta ahalmenak deskontzentratu edo eskuordetzan emon ahal izango dituzte, kasu bakoitzean aplikatu beharreko arau eta formalitateak betez, betiere, administrazio-organoak badira.

Kontratu honetarako kontratazio-organoa izango da baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 2 atalean agertzen dena.

3. klausula. Kontratuaren pertsona arduraduna

Kontratazio-organoak kontratu honetarako izendatuko duen arduradunari dagokio, SPKLaren 62.1 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratua nola egikaritzen den gainbegiratzea eta beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta beharrezkoak diren jarraibideak emotea hitzartutako prestazioa behar bezala emoten dela bermatzeko.

Gainera, kontratuaren arduradunaren funtzioak dira:

- a) Preskripzio Teknikoen Baldintza-Agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako gainerako baldintza tekniko batzuk interpretatzea.
- b) Zerbitzuak faseetako bakoitzean emon ahal izateko beharrezkoak diren bitartekoak eta antolaketa egotea exijitzea.
- c) Kontratuaren helburuak lortzeko emon behar diren aginduak emotea.
- d) Zerbitzuen garapen ona lortzeko sartzeari komerzioki diren aldaketak proposatzea.
- e) Kasua bada, adostutako egikaritzeko eta ordaintzeko epeen arabera egindako zerbitzuei dagozkien ziurtagiri partzialak egitea.
- f) Zerbitzuen garapenean zehar sortutako intzidentziak izapidetzea.
- g) Zerbitzuen garapen eta gainbegiratze ona lortzeko uste diren beste bilera deitzea. Bilera hauetara derrigorrean joan beharko dute enpresa esleipendunaren ordezkariak enpresako eta zerbitzuaren egikaritzan zerikusia duen fakultatibo, teknikari edo pertsonal juridikoarekin batera.
- h) Ez betetzeagatik edota akatsekin betetzeagatik, edo baita egikaritze-epea ez delako bete zehapenak proposatzea.
- i) Kontratua suntsiarazteko proposamena egitea.

4. klausula. Unitate arduraduna kontratuaren jarraipenerako eta egikaritzeko

SPKLaren 62. artikulua xedatzen duenarekin bat kontratu honen jarraipenerako eta egikaritze arrunterako unitate arduraduna baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 3 atalean zehazten dena izango da.

III. KAPITULUA KONTRATUA

5. klausula. Kontratuaren xedea eta premia

Baldintza-agiri honek arautzen duen kontratuaren xedea da preskripzio teknikoaren agiriaren I Eranskinaren 1 atalean zehazten diren zerbitzuak egikaritzea, zeinetan kontuan hartu behar diren eragintzako faktoreak zehazten diren. Atal berean, kontratuaren bidez erantzun behar diren administrazio premiak ere aipatzen dira.

SPKLaren 99.3 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratazio-organoak kontratuaren xedea loteka ez zatitzea erabaki ahal izango du arrazoi baliagarriak daudenean. Arrazoi horiek behar moduan

justifikatu beharko dira. Kontratu honetan loteka ez zatitzearen justifikazioa baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 1 atalean zehazten da.

6. klausula. Balio estimatua

Kontratu honen balio estimatua, SKPLaren 101 artikulua xedatzen duenarekin bat, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 4 atalean zehaztutakoa da.

Balio estimatua kalkulatzeko kontratazio-organoak aplikatutako kalkulu-metodoa I Eranskinaren 4 atalean agertzen dena da.

7. klausula. Lizitaziorako oinarri aurrekontua eta kontratuaren prezioa

Kontratuek beti prezio jakin bat izango dute, eta hau eurotan adieraziko da.

Kontratuaren lizitaziorako oinarri aurrekontua baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 5 atalean zehazten dena da. Desglosea eta aurreikusi den banaketa urteka baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 5 atalean zehazten da. SPKLaren 100 eta 309 artikuluetan xedatutakoa jarraituz egin da. Kalkulu honetan edozein motatako zergak sartzen dira.

Edozein kasutan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) dagokion zenbatekoa aparte sartuko da.

8. klausula. Kreditua

Zerbitzuen egikaritzea baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 5 atalean zehazten diren kredituen babespean geratzen da.

9. klausula. Epea eta egikaritzeko lekua

Baldintza-agiri honek aipatzen dituen beharrak egiteko epe guztia eta partzialak I Eranskinaren 8 atalean agertzen direnak dira, epe partzialak izanik lan-programa onartzeko finkatuko direnak, kasua hori bada.

Lan-programaren onarpenean finkatuko diren epe partzialak, onespenean zehazten diren ondorioekin, kontratuaren barruan sartuta geratuko dira legearen ondorioetarako.

“Jarduera” izeneko zerbitzu-kontratuetan, kontratistak modu erregular eta jarraian zerbitzua emoten duenean, epea finkatu beharko da iraupen-epe modura. Hala eta guztiz ere, egikaritze-epe finko bat ezarri den kasuan, hasieran finkatutako datarekin esleipenean atzerapena sortu bada, egikaritzeko epea laburragoa izango da, eta ondorioz kontratistaren prestazioak ere emoteko epean eragina izango du, beraz, prezioan eragina izango du eta baita behin betiko bermean, gutxiago izango baitira.

Edozein kasutan, prestazio kontratuen eta egikaritze iraupen-epeekin lotuta, SPKLaren 29 artikulua xedatzen duena kontuan hartu beharko da.

Kontratua egikarituko da baldintza-agiri honen I Eranskinaren 8 atalean agertzen den lekuan.

10. klausula. Kontratuaren luzapena

Aurreko klausulak jasotzen duenaren kaltetan gabe, kontratua luzatu ahal izango da SPKLaren 29 artikulua xedatzen duenarekin bat.

Luzapena kontratazio-organoarekin adostuko da eta esleipendunarentzat derrigorrezkoa izango da, beti ere, aurreabisua kontratuaren epea amaitzen den eguna baino bi hilabete lehenago egiten bada.

Aurreabisua emoteko obligaziotik salbuetsita geratuko dira bi hilabeteko iraupena baino txikiagoko kontratuak, hori guzti hori SPKLaren 29.2 artikulua xedatzen duenarekin bat.

Ez da inolaz ere luzatuko aldean isilbidezko adostasunez.

SPKLaren 29.2 artikulua ezarritako kontratuaren luzapena ez da derrigorrezkoa izango kontratistarentzat kontratuan SPKLaren 198.6 artikuluan aurreikusten den suntsiarazteko arrazoia bada, Administrazioa sei hilabete baino gehiago atzeratu bada prezioaren ordainketan.

Hasieran ezarritako behin betiko bermea luzapen-aldiari aplikatu ahal izango zaio zenbatekoa doitzeko premia barik, ez bada luzapenarekin batera kontratuan aldaketa egitea erabakitzen dela.

Kontratu hau luzatzeko edo ez luzatzeko aukera baldintza-agiri honen I Eranskinaren 8 atalean aurreikusita dago.

Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, kontratuaren mugaegunean ez denean kontratu barririk egin, kontratistak emon beharreko prestazioaren jarraitasuna bermatzen duenik, kontratazio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da kontratu barria egikaritzen hasten den arte eta, nolahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu barrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana.

Kasu honetan, luzapen hau ezin denez aurreikusi, eta aplikazioa ez denez ezta ere kontratazio-organoaren borondatearen ondorio, aipatutako luzapena ez da kontuan hartuko balio estimatua finkatzeko, ez eta aplikatuko da lehenago aurreabisua emoteko obligazioa.

Luzapenak onartu egin beharko dira kontratuaren amaiera baino lehen.

11. klausula. Egikaritze-baldintza bereziak.-

Kontratazio-organoek kontratuaren egikaritzarekin lotuta baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte, betiere xedeari lotuta badaude, SPKLaren 145 artikulua xedatutakoaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak eta Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira.

Egikaritzeko baldintza bereziak kontratu honetarako baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 24 atalean zehazten dira.

Egikaritzeko baldintza berezi hauek betetzen ez diren kasurako baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 30 atalean agertzen diren zigorrak ezarri beharko dira edo betebeharrak hauek kontratu barruan sartu beharko dira eta funtsezko betebeharrak izatera emon, SPKLaren 211 f) artikulua aipatzen dituen ondorioetarako.

Kontratu honetakoak diren egikaritze-baldintza berezi guztiak bardin exijituko zaizkie kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten gainerako azpikontratatista guztiei.

12. klausula. Prezioak berrikustea

Prezioak berrikustean baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 6 atalak zehazten duena beteko da, hori guzti hori SPKLaren 103 artikulua xedatzen duenarekin bat.

Behin-behineko prezioekin egindako kontratuetan ez da preziorik berrikusteko aukerarik egongo SPKLaren 102.7 artikulua xedatzen duenarekin bat.

IV. KAPITULUA. Lizitatzaileria

13. klausula. Kontratatzeke gaitasuna

Kontratu honetako esleipenean parte hartzeke aukera izango dute Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, betiere kontratatzeke debekuren batek eragiten ez badie eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatu badute, edo behar moduan sailkatuta badaude, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 11 atalak jasotzen duenarekin bat.

Enpresaburuen Aldi baterako Elkarteak direla eta, osaeraren aldaketa hala nola lizitazioan zehar egiten diren aldaketak 69.8 artikulua eta hurrengoek xedatutakora egongo da.

Kontratatzeke parte hartzen duen enpresen elkarketen kasuan, indarreke kontratuak jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo elkarketatik ondorioztatzen denarekin, eta hau kontratuaren eskubide eta betebeharrerara subrogatuta geratuko da. Modu berean, enpresen (edo haien jarduera-adarren) zatiketa, ekarpena edo eskualdatzea gertatzen denean, kontratuak indarrean jarraituko du kontratu eskuratuko duen erakundearekin; erakunde horrek kontratatutik eratorritako eskubide eta betebeharr guztiak hartuko ditu subrogazio bidez, baldin eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu, kontratatzea debekatua ez badu eta kontratu adjudikatu zenean beharrezko ziren kaudimen-eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu edota aipatutako eragiketaren onuradun diren sozietateek eta zatitutako ondare, enpresa edo adarren iturburu den sozietateak –artearen irauten badu- harekiko erantzukizun solidarioa hartzen badute kontratu egikaritzeari dagokionez. Subrogazioa ezinezkoa bada kontratu eskuratuko duen erakundeak beharrezkoak diren kaudimen-eta gaitasun-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratu suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela iritziko zaio ondorio guztietarako.

Aurreke ondoreetarako, enpresak kontratazio-organoari komunikatu beharko dio gertatutako inguruabarra.

Pertsona juridikoek ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

Enpresaburuek kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 13 atalean jasotakoarekin bat.

Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu batekoak diren enpresak eta Europar Batasunaz kanpoko enpresak direla eta, SPKLaren 67 eta 68 artikulua aplikatuko dira.

14. klausula. Saillapena eta kaudimena

SPKLaren 74 artikulua xedatzen duenarekin bat, sektore publikoarekin kontratuak egin ahal izateke, enpresaburuek gutxieneke baldintzak bete beharko dituzte kontratazio-organoak ezarritako ekonomia-eta finantza-kaudimenari eta gaitasun profesional edo teknikoari dagokienez. Baldintza honen orde saillapena eskatu ahalko zaie.

Zerbitzu-kontratueterako ezingo da exijitu enpresaburuaren sailkapena. I Eranskinaren 11 atalean ekonomia-eta finantza-kaudimeneko eta kaudimen tekniko edo profesionaleko gutxienezko irizpideak ezarriko dira Legearen 87 eta 90 artikuluetan aurreikusi moduan, bai sailkapeneko talde edo azpitaldeei eta eskatzekoa den gutxieneko kategoriari dagokienez, baldin eta kontratuaren objektua indarrean den sailkapeneko talde edo azpitalderen baten sailkapen-eremuan sartzen bada. Horretarako, kontratuaren CPV kodea hartuko da aintzat.

Beraz, enpresaburuak bi modutara egiaztatu ahalko du bere kaudimena: kontratuari dagozkion sailkapen-eta kategoria-taldean egotearen bitartez edo I Eranskinaren 11 atalean zehaztutako kaudimen baldintza espezifikoak betetzen dituela egiaztatuz.

Halaber, SKPLaren 92 artikulua xedatzen du erregelamendu bidez, salbuetsi ahalko da ekonomia-eta finantza-kaudimena edo kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatu beharra, kopuru jakin bateko zenbatekoa gainditzen ez duten kontratuen kasuan. 35.000 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten zerbitzu-kontratuen kasuan baldintza-agiriaren I Eranskinaren 11 atalean berariaz zehaztuko da APKLAOaren, abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuak aldatu zuena, 11 artikulua aurreikusten duenarekin bat, kaudimena egiaztatzeko baldintzak bete behar dituen ala ez.

15. klausula. Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez osatzea

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena eta gaitasuna egiaztatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da, erakunde horiekin dituen izaera juridikoa dena dela ere, baldin eta kaudimen eta bitarteko horiek kontratua egikaritzeko aldi osoan izango dituela egiaztatzen badu eta oinarritzat aurkezten duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Baldintza bardenetan, 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako enpresa-elkarteetan bildurik aurkezten diren enpresaburuak aldi baterako elkarteaz kanpoko erakundeen gaitasunaz baliatu ahalko dira.

Beraz, lizitatuzaileek egiaztatu ahal izango dituzte I Eranskinaren 11 atalean jasotako kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala beste erakunde batzuetako kaudimen eta bitartekoak aurkeztuz.

Sailkapenik ez badu edo aurkeztutakoa nahikoa ez bada, ezingo da ordeztu kaudimenaren integrazioa kanpoko bitartekoekin.

SPKLaren 75.1 artikulua xedatzen duenarekin bat, 90.1.e) artikuluan aipatzen diren ikasketa-tituluei eta lanbide-tituluei buruzko irizpideei dagokienez edo egoki den esperientzia profesionalari dagokionez, enpresek soilik jo ahalko dute beste erakunde batzuetara haien gaitasunaz baliatzeko baldin eta erakunde horiek egin behar badituzte gaitasun horiexek beharrezko dituzten obra edo zerbitzuak.

Zerbitzu-kontratuetera, SPKLaren 75.4 artikulua xedatzen duenarekin bat, botere adjudikatuzaileek exijitu ahalko dute atal edo lan batzuk, haien izaera berezia dela eta, lizitatuzaileak berak zuzenean egin ditzala edo, enpresaburuaren elkarte batek aurkeztutako eskaintza baten kasuan, elkarte horretako partaideetako batek egin ditzala, dagokion baldintza-agirian hala aurreikusi baldin bada. Aipatutako aukera hau I Eranskinaren 25 atalean dago araututa.

16. klausula. Kaudimeneko baldintzen zehaztapena

Zerbitzu-kontratuetan pertsona juridikoei eskatu ahalko zaie prestazioa emoteaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-kualifikazioak jar ditzatela eskaintzan edo parte hartzeko eskaeran, SPKLaren 76.1 artikulua xedatzen duenarekin bat.

Halaber, SPKLaren 76.2 artikulua ondoz, kontratazio-organoek aukera izango dute lehiatzaileei edo lizitatzzaileei eskatzeko, baldintza-agirietan horrela jasota utzi badute, beren kaudimena edo –hala badagokio- sailkapena egiaztatzeaz gain konpromisoa har dezatela kontratua egikaritzeko behar diren giza baliabideak edo bitarteko materialak jartzeko. Konpromiso hauek kontratuaren agirian funtsezko obligaziotzat jo beharko dira, 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, edo zigorrak ezarri beharko dituzte, 192.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunak konpromiso horiek betetzen ez badituzte ere.

Kasua bada, kontratuaren arduradunen izenak eta lanbide-kualifikazioa emon behar direla, hala nola kontratua egikaritzeko behar diren giza baliabideak edo bitarteko materialak jartzeko konpromisoa hartu behar dela, baldintza-agiri honen I Eranskinaren 12 atalean zehaztu dira.

V. KAPITULUA. Adjudikazio-prozedura.

Lehen atala. Prozedura eta adjudikazio-irizpideak

17. klausula. Prozedura

SPKLaren 131 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratuaren prozedura irekia izango da eta adjudikazio-irizpide bat edo ugari izango ditu baldintza-plegu honen I Eranskinaren 10 atalean xedatutakoaren arabera eta aipatutako legearen testuan ezarritako modu eta baldintzetan, SPKLaren 145 eta 146 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

18. klausula. Publizitatea

Administrazio publikoetako kontratuak esleitzeko lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Elorrioko Udalaren kontratatzailearen profilean, baldintza-agiri honen I Eranskinaren 35 atalean agertzen dena, kontratuaren lizitazio-deialdiarekin lotuta informazioa emongo da eta administrazio-klausula partikularren agiria eta balego, dokumentazio osagarria ere bertan argitaratuko dira.

Kontratuek, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 4 atalean jasotakoaren arabera, erregulazio harmonizatuari lotuta badago, lizitazioa baita argitaratuko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, SPKLaren 135 artikulua xedatzen duenarekin bat.

Lizitazio-prozeduran interesatutako pertsonak baldintza-agirien eta agiri osagarrien gaineko informazio gehigarria eskatu ahal izango dute baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 34 atalean finkatutako aurrerapenarekin.

19. klausula. Adjudikatzeko irizpideak

Adjudikazio edo esleipenerako oinarri izango diren irizpideak baldintza-agiri honen I Eranskinaren 10 eta 19 ataletan agertzen direnak dira, hautatutako irizpideak haztatzerik ez badago behar bezala frogatutako arrazoi objektiboak tarteko, garrantziaren arabera zerrendatuko dira irizpideok, garrantzitsuenetik hasita.

Adjudikazio-irizpide bakarra egongo dela esaten denean, hau kostuekin lotutakoa izango da, prezioa izan daitekeelarik edo errentagarritasunean oinarritutako irizpide bat, hala nola bizi-zikloaren kostua 148 artikulua xedatzen duenarekin bat kalkulatuta.

Adjudikazio-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, irizpide bakoitza zein fasetan aplikatuko den adieraziko da, eta irizpide kualitatibo guztien puntuazioaren ehuneko 50eko gutxieneko atalasea ezarriko da hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko, eta hori jaso egin beharko da I Eranskinaren 19 atalean.

Kasu hauetan, aurkezten den proposamenak balorazio-fase beste gutun-azal eduki beharko ditu, bat fase bakoitzak bat.

Adjudikazio-irizpide objektiboen artean, I Eranskinaren 20 atalean eskaintza bat anormala identifikatzeko parametro objektiboak zeintzuk izango diren esaten da, SPKLaren 149.2 atalean xedatzen duenarekin bat.

Bigarren atala: Bermeak

20. klausula. Behin-behineko bermea

Kontratazio-organoak lizitatuzaileei behin-behineko bermea eskatzea erabaki badu, lizitatuzaileek baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 14 atalean zehaztutako zenbatekoari dagokion bermea ezarri beharko dute.

Lizitatuzaileak eskaintza enpresaburuen aldi baterako elkartearen pean aurkezten badu, behin-behineko bermea parte hartzen duen baten edo gehiagoren artean aurkeztu ahal izango dute, betiere guztiak I Eranskinaren 14 atalean exijitutako zenbatekoa denean eta bermatzen baditu, modu solidarioan, elkarte osatzen duten kide guztiak.

Bermeen era eta baldintzei buruz, SPKLaren 106 eta 108 artikuluetan xedatutakora egongo da, hala nola, APKLAOaren 55, 56, 57 eta 58 artikuluek xedatzen dutenera.

Berme hau udal diruzaintzan ezarri beharko da dirutan edo baloreetan egin behar denean. Bermeak ezartzerako, kasu bakoitzean, baldintza-agiri honetako III eta IV Eranskinetako ereduak erabili beharko dira.

Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da eta kontratua burutu ondoren, berehala, itzuliko zaizkie lizitatuzaileei.

Edozein kasutan, behin-behineko bermea adjudikazioduna den enpresa lizitatuzaileari itzuliko zaio behin betiko bermea ezarri ondoren. Gura izanez gero, behin-behineko bermea behin betikoan aplikatu ahal izango da, edo aldiz, behin betiko berme barri bat ezarri ahal izango da.

21. klausula. Behin betiko bermea

Eskaintza hoberena egiten duen lizitatzailleak kontratazio-organoaren aurrean behin betiko bermea ezarri beharko du 145 artikulua xedatutako jarraituz. Honen zenbatekoa izango da lizitatzailleak eskaintako azken prezioaren, BEZa kenduta, 100eko 5ari dagokiona, edo kasua bada, lizitazio-oinarriaren aurrekontuarena, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 15 atalean aurreikusitakoaren arabera. Bermea ezarri duela egiaztatzeko 10 egun baliodun izango ditu kontratazio-organoaren errekerimendua (SPKL 150.2 art.) jaso duen egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

Dena den, behin betiko bermea SPKLaren 110 artikulua aurreikusten dituen gaiei erantzuteko erabiliko da. Aipatutako kontzeptuen barruan SPKLaren 196 artikulua aurreikusten duen hau dago: kontratistaren betebeharra izango da kontratua egikaritzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztien kalte-ordaina emotea.

Behin betiko bermea ezarriko da SPKLaren I Liburuaren IV Tituluaren I Kapitulan aurreikusitakoaren arabera, eta SPKLaren 108.1 artikuluan aurreikusitako eretatik edozeinetan, hautatutako eraren arabera doitz baldintza-agiri honetako III eta IV Eranskinetan agertzen diren eredueta.

Behin-behineko bermea ezarri den kasuetan, esleipendunak behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoari aplikatu ahal izango dio, edo behin betiko barri bat ezarri.

Baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 15 atalean aurreikusitakoarekin bat, SPKLaren 108.2 artikulua aurreikusten duen prezioan atxikipena egin behar denean, lizitatzailleak prezioan atxikipena egitea erabaki duela esan duelako, atxikipen hau lehenengo ordainketan egingo da.

Baldin eta kontratua aldatu delako kontratuaren prezioak ere aldaketaren bat jasotzen badu, bermea egokitu egin behar da, kontratua aldatzeko erabakia enpresaburuari jakinarazi zaion egunetik hurrengo 15 egun baliodunen barruan, kontratua aldatu ondorengo prezioak eta bermeak izan beharreko proportzio egokia izan dezaten, bestela, kontratua suntsiaraziko da. Epe berdinean, zigorrak edo kalte-ordainak gauzaten diren egunetik kontatzen hasita, esleipendunak berdindu edo handitu egin beharko du bermeari dagokion zenbatekoa, bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoietan sartuko da eta. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko I Liburuaren III Tituluaren II Kapitulan aurreikusitakoaren arabera egindako prezio berrikusteen ondorioz izandako prezio aldaketak.

Berme osagarria SPKLaren 107.2 artikuluan aurreikusitakoa jarraituz ezarriko da, eta baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 16 atalak jasotzen duenera egongo da, kasua bada.

22. klausula Behin betiko bermea itzuli eta kitatzea

Kontratuaren likidazioa onartu ondoren, eta berme-epea amaitu eta gero, bermearen kontra gauzatu beharreko erantzukizunik agertzen ez bada, eta baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 32 atalean zehaztutako zerbitzuen berme-epea igarota, bermea itzultzeko erabakia hartuko da.

Kontratua amaitzen denetik urtebete igarota eta berme-epea amaitua, edo sei hilabete kontratuaren zenbatekoa 100.000 eurotik beherakoa denean, edo enpresa lizitatzailleek enpresa txiki edo ertainaren baldintzak betetzen dituztenean Batzordearen 2008ko abuztuaren 68ko 800/2008 (EE) Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz eta ez daudenean zuzenean edo zeharka baldintza horiek betetzen ez dituen beste enpresa batek kontrolatuta –erregelamendu horren bidez barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen zenbait kategoria deklaratzeko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107 eta 108 artikulua aplikatuta-, kontratistari aplikatu ezin dakizkiokeen kausak direla medio ez jasotzeko egintza formalik eta ez likidaziorik egin ez bada, itzuli

edo ezereztu egingo dira bermeak, luzapen gehiagorik gabe, SPKLaren 110 artikuluan aipatutako erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren eta APKLAOaren 65.3 artikuluan xedatutakoaren kaltetan gabe.

Harrera partzialak egiteko aukerak aurreikusi diren kasuetan, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 8 atalak dioenera egongo da, bermearen hein bereko zatia ezerezteko.

II. TITULUA KONTRATUAREN LIZITAZIOA.

I. KAPITULUA. Proposamenak

23. klausula. Proposamenak aurkeztea

Proposamenak lizitazio-iragarkian zehaztutako eran, epean eta lekuan aurkeztuko dira, APKLAOaren 80 artikulua xedatzen duena aplikatuz. Eran, epea eta esandako lekuan aurkezten ez diren proposamenak ez dira onartuko.

Lizitatzailerak bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Proposamena bakarka aurkeztu badu, ezingo du proposamenik izenpetu beste enpresaburu batzuekin aldi baterako elkarteetan, edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon bada. Arau hauek hausten badira lizitatzailerak sinatutako eskaintza guztiak ez dira onartuko, beraz, kanpoan geratuko dira.

Proposamenak aurkezte hutsak, adierazten du enpresaburuak, bat ere salbuespenik gabe, baldintzarik gabeko onarpena emoten diola kontratua arautzen dituen klausula edo aurreikusitako baldintza guztien eduki osoari.

Aldaerekin lotuta, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 21 atalean jasotakora egongo da.

24. klausula. Proposamenen era eta edukia

Proposamen bakoitzak baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 18 atalean zehaztutako gutun-azalak edukiko ditu.

Gutun-azalak itxita aurkeztuko dira eta lizitatzailerak edo ordezkatzeko duen pertsonak sinatuta egongo dira. Gutun-azal bakoitzaren kanpo aldean erreferentzia-zenbakia eta kontratuaren izena idatzita egongo dira, eta baita lizitatzaileraren izen-abizenak edo enpresaren izen soziala dagokion IFZrekin. Barruan gutun-azalean sartu diren agirien zerrenda zenbakitua agertu beharko da. Gutun-azalak honako hauek izango dira:

A) GUTUN-AZALA: "ALDEZ AURREKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK".

"A" gutun-azalaren "Aldez aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak" barruan, lizitatzailerak honako hau sartu beharko dute:

1.- Erantzukizunpeko adierazpen bat SPKLaren 140 artikulua xedatzen duenarekin bat, Europako kontratazio agiri bakarraren formularioari egokitutako zaiona (EKAB), urtarrilaren 5eko 2016/7 zenbakia duen Erregelamenduaren (EB) bidez onartua. Hau, sinatuta eta dagokion identifikazioarekin egongo da. (<https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd>).

Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuko "Informazio orokorra" izeneko atalaren barruan, II. Zatiko A ataleko bosgarren galderan ezarritakoaren arabera, "baimendutako eragile ekonomikoen zerrenda ofizial" batean izena emonda duten enpresek "zerrenda ofizial" horietan inskribatuta ez dauden datu eta informazioa baino ez dute emon beharko formularioaren zati bakoitzean. Espainian, enpresek ez dituzte emon beharko dagokien Lizitatzailen Erregistroan eguneratuta dauden datuak: Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala, edo SKPLren 341. artikuluan aurreikusitako autonomia mailako parekidea, hori beti enpresek Europako kontratazio-agiri bakarraren (EKAB) formulario normalizatuaren kontratazio-organoak dagokion sarbidea egin ahal izateko behar den informazioa sartzan badute (Interneteko helbidea, identifikazio-datu guztiak eta, hala badagokio, beharrezko onespenez adierazpena), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/24(EB Zuzentarauaren 59.1 artikulua)ren azken-aurreko paragrafoa, eta horrekin bat formularioaren VI zatian ezarritakoa. Ondorio hauetarako kontsultatu ahal izango da 2016ko apirilaren 6ko Ebazpena, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinen bidez, Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen Gomendioa argitaratzen den, kontratazio publikoaren zuzentzarau barruan aurreikusitako Europako Kontratazio Agiri Bakarra erabiltzeari buruzkoa, Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotako informazioa egiaztatzeko.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo erregistro autonomiko baliokidean inskribatuta badago, enpresa lizitatzailleak ziurtatu beharko du erregistro horietan inskribatutako eta eguneratutako datuak zeintzuk diren, eta baita zeintzuk diren inskribatu ez direnak, edo inskribatuta egonda eguneratu barik zeintzuk dauden.

EBko estatu kideetatik datozen enpresa ez nazionaleri dagokienez, bai kontratazio-organoak, bai enpresa interesdunek eskura dute e-Certis lineako ziurtagirien gordailua. Honetan, lizitazio publiko batera aurkezteko alde aurreko baldintzak betetzen dituztela frogatzeko enpresa interesdunek estatu bakoitzean erabili behar dituzten dokumentu eta ziurtagirien zerrenda osoa eta eguneratua aurkituko dute, hala nola lizitatzailen erregistroen edo beste batzuen zerrenda eta ziurtagiri eta dokumentu hauek luzatzen dituzten datu-baseak.

2.- Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez osatzea

Beste enpresa batzuen kaudimena eta bitartekoak SPKLaren 75 artikulua xedatzen duena betetz egingen denean, enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena behar moduan beteta eta sinatuta aurkeztu beharko da VI Eranskinean agertzen den eremuan.

Halaber, lizitatzailleek lan eta gizarte arloan indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztela esan beharko dute, hala nola, dagokion kasuetan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45 artikulua 2 eta 3 atalean xedatutakoa, Berdintasun Plana bat idazteari eta aplikatzeari buruzkoak. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, kontratazio-organoak aipatutako betebeharrak betetzeari buruz esleituta dituen ikuskapen-ahalmenak erabili ahal izango ditu.

3.- Enpresaburuaren aldi baterako elkarteak.

Aldi baterako elkarte baten bidez enpresaburu bat baino gehiago aurkeztzen den kasuetan, enpresa parte-hartzaile bakoitzak klausula honetako bat atalean adierazten den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

Aipatutako adierazpenaz gain, aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela adierazten duen agiria aurkeztu beharko dute, SPKLaren 69.3 artikulua xedatzen duenarekin bat, eta enpresa-elkarteek, gutxienez ere, kontratua amaitzen den arte iraungo dute.

Konpromiso-idatzian honako datu hauek adierazi beharko dira: partaideen izenak eta inguruabarrak, baita bakoitzak zenbateko partaidetza duen. Gainera, kontratua esleitzen bazaie, orobat adierazi beharko dute aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela. Aipatutako agiri hori elkarte osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuta egon beharko du.

Aldi baterako elkarte bakoitzaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa dela eta, eta bere ondorioetarako, elkartekide bakoitzak egiaztatutako berezitasunak metatuko dira.

Elkartuta aurkezten diren enpresaburuak sailkapenaren eskakizuna betetzen ote duten baloratu eta ebazteko, enpresaburu bakoitzaren ezaugarriak metatuta hartuko dira kontuan, erregelamenduz zehazten den moduan, bakoitzaren sailkapenetan azaltzen denari erreparatuz. Nolanahi ere, metaketa hori egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da enpresa guztiek zerbitzu-enpresaren sailkapena aurrez lortu izana; kontuan hartuko da, halere, artikuluko honen 4. apartatuak Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetaoak diren enpresaburu ez-espainiarrentzat ezarritakoa.

Sailkapenen metatzea erregelamendu bidez eskatutakoa izango da.

Sailkapena eskatu behar den kasuetan, enpresaburuaren elkartean Espainiako estatuko enpresaburuak, Europar Batasuneko estatu kide batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoak ez diren atzerritarrek eta Europar Batasuneko estatu kide batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duen estatu batekoak diren atzerritarrek parte hartzen badute, lehenengo bi taldeetakoek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta hirugarren taldekoek, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko edo profesionala.

Esleipena aldi baterako elkarte bati egiten bazaio, esleipena egin ondoren honek aldi baterako eratutako elkartearen eskritura publikoa aurkeztu beharko du, hala nola elkarteari emon zaion IFZa. Edozein kasutan, enpresa-elkarteak kontratua amaitzen den arte iraungo du.

4.- Kaudimen baldintzen gaineko zehaztasunak

Baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 12 atalean aurreikusi bada, SPKLaren 76.2 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratua egikaritzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak jartzeko konpromisoa aurkeztea eskatu bada, aipatutako konpromisoa aurkeztu beharko da.

Baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 12 atalean aurreikusi bada, SPKLaren 76.1 atalean xedatzen duenarekin bat, prestazioa emoteaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-kualifikazioak eskatzen badira, informazio hori jasotzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5.- Behin-behineko bermea

Behin-behineko bermea ezartzea eskatzen den kasuan baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 14 atalean zehaztutako kopuruari dagokion bermea ezarri izanaren agiria aurkeztu beharko da, baldintza-agiriaren 20 atalean ezarritako baldintza eta betebeharrekin bat.

6.- Lotutako enpresak

Talde berekoak baino ez diren enpresak, hau da, Merkataritza Kodearen 42 artikuluan aurreikusitako kasuetako batean daudenak, eta esleipenera bakarrik aurkezteko eskaintza ezberdinak aurkezten dituztenak, adierazpen bat aurkeztu beharko dute baldintza hori jasoz.

Halaber, adierazpen esplizitua aurkeztu beharko dute, proposamen bat baino gehiago aurkeztu eta Merkataritza Kodearen 42 artikuluan ezarritako beste kasu alternatiboren batean proposamen desberdinak aurkezten dituzten sozietateek kodea osatzen duten bazkideei dagokienez.

7.- Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia (V. eranskina eredutzat hartuta), beharginen ehuneko bira desgaitua izan behar duela betebeharra betetzen duela aitortzekoa edo beste neurri batzuk hartuko dituela adieraztekoa; eta lan, gizarte eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen betebeharrak betetzen dituela adieraztekoa.

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Pertsona Ezinduen Eskubideei eta Horiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen dunak, xedatutakoaren arabera, plantillan 50 langile edo gehiago dituzten lizitatzailleek behartuta daude ezgaitasuna duten langile-kopurua %2koa edukitzera edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak, desgaitasuna duten langileen aldeko erreserba-kuota salbuespenez modu alternatiboan betetzea arautzekoa, aurreikusten dituen neurri alternatiboak hartzera.

Ondorio hauetarako, lizitatzailleek V Eranskinaren ereduarekin bat erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzeko, xedatzen duena betez. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, kontratazio-organoak aipatutako betebeharrak betetzeari buruz esleituta dituen ikuskapen-ahalmenak erabili ahal izango ditu.

Halaber, lizitatzailleek lan eta gizarte arloan indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztela esan beharko dute, hala nola, dagokion kasuetan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45 artikuluen 2 eta 3 atalean xedatutakoa, Berdintasun Plana bat idazteari eta aplikatzeari buruzkoak. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, kontratazio-organoak aipatutako betebeharrak betetzeari buruz esleituta dituen ikuskapen-ahalmenak erabili ahal izango ditu.

8.- Posta elektronikoko helbidea.

Jakinarazpenetarako "gaitutako" posta elektronikoko baten helbidea, hamabosgarren Xedapen gehigarriak xedatzen duenarekin bat, ez bada EKABean agertzen den bera dela.

B) "B" GUTUN-AZALA "ZIFRA EDO EHUNEKO BIDEZ BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK"

Gutun-azal honetan judizio-balio baten arabera haztatuko diren irizpideen arabera baloratuko den dokumentazioa sartu beharko da.

C) "C" GUTUN-AZALA "ZIFRA EDO EHUNEKO BIDEZ BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK"

"Zifra edo ehuneko bidez baloratuko diren irizpideak" izeneko gutun-azalaren barruan, beste batzuen artean, eskaintza ekonomikoa sartuko da baldintza-agiri honetako II Eranskinaren eredia jarraituz idatzita aurkeztuko dena. Ez dira onartuko Administrazioarentzat benetako eskaintza argia zein den jakitea eragozten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik duten eskaintzak. Eskaintzaren bat balego aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datorrena, lizitazio-oinarriaren aurrekontua gainditzen duena, eskaintza aurkezteko onartutako eredian funtsezko aldatetaren bat duena, eskaintzen duen zenbatekoan akats nabarmena egin duena edo lizitatzailleak onartuko balu akatsa edo funtsik ezagatik bideragarria egiten ez duena, kontratazio-organoak arrazoitutako ebazpen bidez

atzera botako du, atzera botatzeko nahiko arrazoi izan barik eskaintzaren eredian berba batzuk aldatzea edo kentzea, esangura aldatzen ez badu.

Eskaintzak jaso beharko du, atal independentean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa.

Halaber, hainbat irizpide kontuan hartu behar denean kontratista hautatzeko, gutun-azal honetan baldintza-agirian ezarritako formulak aplikatuta zifra edo ehuneko bidez automatikoki ebaluagarriak diren irizpideekin lotutako dokumentazioa sartu beharko da.

Esleipen-irizpideekin lotuta aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoari buruz, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 22 atalak aurreikusten duenera egongo da.

25 klausula. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, baloratzea eta proposamenak zabaltzea

Kontratazio-mahaiak erantzukizunpeko adierazpena eta gainerako dokumentazioa kalifikatuko du, eta zuzendu daitezkeen akatsik ikusiko balu, enpresaburuari hiru eguneko epea emongo dizkio akatsok zuzentzeko, eta kasua bada bost eguneko epea argitzeko edo agiri osagarriak aurkezteko.

Komunikazioa enpresaburu interesdunei bitarteko elektronikoki jakinarazpen bidez egingo da.

Dokumentazioa kalifikatu ondoren, eta esandako jarduketak egin ostean kontratazio-mahaiak jendaurreko ekitaldian, ez bada lizitazioan bitarteko elektronikoki erabiltzea aurreikusi dela, onartuen eta baztertuen gaineko erabakia kaleratuko du, baztertze arrazoiekin batera.

Zifratan edo ehunekotan baloratuko ez diren irizpideak dauden kasuan, kontratazio-mahaiak, ekitaldi honetan, kuantifikagarriak ez diren irizpideen gutun-azala zabalduko du, eta bertan dagoen dokumentazioa balorazioa egingo duen organo arduradunari automatikoki emongo dio.

SPKLaren **146.2.a)** artikulua xedatzen duenarekin bat, kualifikazio egokia duten adituen komite batek baloratuko ditu balio-iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideak, hala egitea badagokio irizpide horiei pisu handiagoa emon zaielako modu automatikoan ebaluagarriak diren irizpideei dagokiena baino. Komite horrek gutxienez ere hiru kide izango ditu, eta kontratazio-organismoaren mendeko zerbitzuetakoak izan ahalko dira, baina inolaz ere ezingo dira atxikita egon kontratua proposatzen duen organoari. Organo horri, berriz, eskaintzak ebaluatzea dagokio, edo, bestela, ebaluazio hori baldintza-agirietan behar bezala identifikatuta egongo den organismo tekniko espezializatu bati enkargatzea. Kontratu honetan, irizpide subjektiboen balorazio-organoa baldintza-agiri honen I Eranskinaren 23 atalean zehaztuko da, kasua bada.

Geroago, zifra edo ehunekotan baloragarriak ez diren irizpideei ezarritako haztapena, kasua bada, eskaintza ekonomikoak zabaltzeko eta irakurtzeko egingo den jendaurreko ekitaldian emongo da, ez bada lizitazioan bitarteko elektronikoki erabiliko direla aurreikusi dela. Kontratazio-organismoak, behar besteko aurrerapenez, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 35 atalean agertzen den kontratatzailearen profileen eskaintza ekonomikoak zabaltzeko jendaurreko ekitaldiaren eta emaitza irakurtzeko eguna argitaratuko du.

Jarraian, kasua bada, eskatutako txostenak egin eta gero, kontratazio-mahaiak eskaintzak aktarekin eta egoki iriztitako proposamenarekin batera, asko jota I Eranskinaren 19 atalean zehaztutako irizpideen haztapena jasoko duenak, kontratazio-organismoari bialduko dio.

Esleipendun izateko proposatutako lizitatzailleak lizitazio-prozedura batean parte hartzeko behar diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztutakoan, kontratazio-mahaiak aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu egingo du eta zuzentzekoak diren akatsak atzematen baditu, enpresaburuari hiru eguneko epea emongo dizkio zuzentzeko, eta kasua bada, bost eguneko epea argibideak edo dokumentu osagarriak aurkezteko.

Komunikazioa interesdunei bitarteko elektronikoko jakinarazpen bidez egingo da.

Dokumentazioa kalifikatu ondoren, kontratazio-mahaiak Administrazioarekin kontratatzeko legezko betebeharrak egoki bete direla esango du, edo horrela ez bada, lizitatzaillea prozeduratik kanpora utziko du eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena egingo dio hurrengo lizitatzaillearen alde, eskaintzak sailkatutako ordena jarraituta.

Kontratuaren esleipenaren jakinarazpena eginda eta errekurtsioak tartekatzeko epeak beteta errekurtsorik tartekatu barik, eskaintzei erantsitako dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da. Esleipenaren jakinarazpen-egunetik hiru hilabete igarota jaso ez den dokumentazioa zaintzearen gaineko ardura desagertu egingo da Administrazioarentzat. Interesdunei entregatzeko gordeko den dokumentazio bakarra behin-behineko bermea justifikatzen duen dokumentazioa izango da.

II. KAPITULUA. Adjudikazioa proposatzea, adjudikatzea eta burutzea eta formalizatzea.

26 klausula.- Adjudikatzeko proposamenaren ondorioak. Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea

Kontratuaren adjudikazio-proposamenak ez du inolako eskubiderik sorrarazten proposatutako lizitatzaillearen alde Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatzen ez den bitartean.

SPKLaren 152 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko edo prozeduran atzera egiteko erabakiak kontratazio-organoak hartu ahal izango ditu kontratua formalizatu baino lehenago.

Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia bakarrik hartu ahal izango da espedientean behar bezala justifikatuta dauden interes publikoko arrazoiak daudenean. Prozeduran atzera egiteko erabakia, kontratua prestatu edo adjudikazio-prozedura arautzeko arauen arau-hausteren batean oinarritu behar da, zuzendu ezin daitekeena, eta espedientean atzera egiteko arrazoa justifikatu egin beharko da.

27 klausula. Kontratua adjudikatzea

Kontratua adjudikatzea baldintza-agiri honen I Eranskinaren 2 atalean aipatutako kontratazio-organoari dagokio.

Kontratazio-organoak kontratua eskaintza hoberena egin duen lizitatzailleari adjudikatuko dio SPKLaren 145 artikulua xedatutakoaren arabera. Kontuan hartzen den irizpide bakarra prezioa denean, eskaintza hoberena prezio merkeena duena dela ulertuko da, nabarmenki baxuegiak diren eskaintzak erabakitzeko irizpideak aplikatzearen kaltetan barik. Adjudikazioa irizpide asko erabiliz egiten denean, kalitate-prezio hoberenean oinarrituta egingo da.

Adjudikazioa arrazoitutako ebazpen bidez gehienezko bi hilabeteko epean erabakiko da, eskaintzak

zabaltzen direnetik, esleipena egiteko irizpide asko kontuan hartu behar direnean, edo irizpide bakarra erabiltzen denean, hau, bizitza-zikloaren kostu txikieneko denean, eta 15 eguneko gehienezko epean, eskaintzak zabaltzen direnetik adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra kontratuaren prezioa denean. Epe hauek 15 egun baliodun luzatuko dira nabarmenki baxuegiak diren eskaintzetarako SPKLaren 149.4 artikulua aipatzen dituen izapideak egitea behar denean.

Esleipenaren jakinarazpena lizitzaile guztiei egingo zaie eta Udalaren kontratatzailearen profileen argitaratuko da 15 eguneko epean.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoki bidez egingo da SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarriak xedatzen duenarekin bat.

Kontratazio-organoak lizitazioa hutsal deklaratu ahal izango du, kasua bada, kontratazio-organoaren proposamenez, baldintza-agiri honetan agertzen diren irizpideekin bat onargarria den eskaintza edo proposamenik ez dagoenean.

Kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartu eta gero, dagokien zerbitzuek eskaintza hobereana aurkeztu duen lizitzaileari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita, eskatuko diote SPKLaren 76.2 artikulua arabera kontratua egikaritzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko; behin betiko bermea jarri izanaren agiria, eta kasua bada, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 17 atalean zehazten diren polizak sinatu dituela.

Errekerimendua behar moduan bete ez bada ezarritako epearen barruan, lizitzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta lizitazio-oinarria den aurrekontuaren, BEZik barik, % 3ari dagokion zenbatekoa eskatuko zaio zigor modura, eta hau lehenengo behin-behineko bermetik hartuko da, bermea ezarri bada, SPKLaren 71.2.a) artikulua, kontratatzeke debekuekin lotuta, xedatzen duenaren kaltetan gabe.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio zerrendako hurrengo lizitzaileari, ordena jarraituta.

Halaber, eskaintza hobereana aurkeztu duen lizitzaileak, hala nola esleipendun proposatu den ABEEa osatzen duten enpresa guztiak, erantzukizunpeko adierazpenean jasotako inguruabarrak egiaztatzeke honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1.- Jarduteko gaitasuna.

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa bada, eskritura edo eratze-agiria, estatutuak edo sortze-egintza garatzen duen jarduera arautzen duten arauak agertuko direnean, kasua bada dagokion erregistro publikoan behar moduan inskribatuta egongo dena pertsona juridikoaren arabera, eta baita Identifikazio Fiskalaren Zenbakia (IFZ).

1.2.- Banakako enpresaburua bada, NANA edo, erregelamendu bidez ordeztzen duen agiria.

1.3.- Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresaburuak direnean, haiek ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emonda egiaztatuko da, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiri bat

erregelamenduz ezarritakoaren arabera aurkeztuta, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenak kontuan hartuta.

1.4.- Aurreko paragrafoan sartzen ez diren atzerriko enpresaburuek, Espainiak beren estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresaren egoitzaren lurralde-eremuari dagokion Kotsuletzeko Bulegoaren txostena erakutsita.

1.5. Nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Txosten hori Espainiak atzerrian duen kasuan kasuko bulego ekonomiko eta merkataritzakoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio.

Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek ez dute aurkeztu behar elkarrekikotasunari buruzko txostena.

1.6.- Atzerriko enpresaburuek dokumentazioa gaztelaniara itzulita aurkeztu beharko dute.

2.- Ahalordeen askiespena

Beste baten izenean edo pertsona juridiko baten izenean eskaintzak aurkezten dituztenek, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte idazkaritza sailean:

- Ordezkararen jatorrizko NANA.
- Pertsona juridikoaren gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa eta erakundearen ordezkararen ahalmenena lizitazio publikoetan parte hartzeko.
- Lizitaziorako baino ez emon den ahalorde berezia ez bada behintzat, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko dute ahalordeek, sozietateen kasuan.

3.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, eta gaitasun tekniko edo profesionala.

Lizitatuzaileek egiaztatu ahal izango dute bere kaudimena, berdin, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 11 atalean zerrendatzen diren moduan eta bitartekoen bidez, edo baita aipatutako I Eranskinaren 11 atalean agertzen den taldearen, azpitaldearen eta kategoriaren bitartez.

Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresaburuek kaudimen ekonomikoaren, eta finantzarioaren eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko dokumentazioa SPKLaren 87 eta 90 artikuluetan aurreikusi moduan, eta kontratazio-organoak baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 11 atalean aurreikusitako bitartekoen bidez.

Ondorio hauetarako, kontratatzeko baimendutako enpresaburuekin Europar Batasuneko estatuek egindako zerrenda ofizialak kudeatzeko organo eskudunek emondako inskripzio-ziurtagiriek, ziurtagiria emoten duen estatu kidean ezarritako enpresaburuei buruzkoek, gaitasun-presuntzio bat ekarriko dute haietan agertzen den hautaketa kualitatiboaren baldintzei dagokienez.

Presuntzio-balio berbera izango dute, haietan ziurtatutako gaiei dagokienez, enpresaburua ezarrita dagoen estatu kideko legeriarekin bat datozen ziurtatze-organismo eskudunek emondako ziurtagiriek, Europako ziurtapen-arauak betetzen dituztenean.

Aurreko paragrafoan aipatutako agirietan, enpresaburua zerrendan inskribatzeko edo ziurtagiria emoteko erabili diren erreferentziak adierazi beharko dira, baita lortutako sailkapena ere.

35.000,00 euroko zerbitzu-kontratuak edo txikiagoak.

Baldintza-agiri honetako I Eranskineko 11 atalean beste ezer esaten ez bada, 35.000,00 eurokotik gorakoak ez diren zerbitzu-kontratuetan, lizitatzailleek salbuetsita geratuko dira kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa eta profesionala egiaztatzen.

4.- Enpresa gaikuntza.

Lizitatzailleak enpresa gaikuntza egiaztatu behar duen kasuan baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 13 atalean aurreikusitakoarekin bat, gaikuntza egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

5.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa.

Atzerriko enpresek, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, kasua suertatuko balitz, lizitatzailleari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egitea.

6.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin

Zerga betebeharrak:

- a) Kontratu honen xede den epigrafean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta-agiria, jatorrizkoa edo konpultsatua, zerga honi lotutako jardueretan jarduten badu, eskaintza aurkeztu duen egunean garatzen ari denarekin lotuta jarduerak garatzen badira behintzat, urtekoa edo azken ordainagiria, adierazitako zergaren matrikulan baja ez duela eskatu jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.

Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute salbuespenaren arrazoia azalduz. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 82.1 artikuluko b), e) eta f) ataletan ezarritako salbuespenen batean egonez gero, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren salbuespenari buruzko berariazko ebazpena aurkeztu beharko dute.

Enpresaburuen aldi baterako elkarteek, eratu ondoren, zergaren alta-agiria egiaztatu beharko dute, elkarte osatzen duten enpresei ordaintzea dagozkien zergen kaltetan gabe.

- b) Eskumena duen Zerga Administrazioaren ziurtagiri positiboa, APKLAOren 13 artikuluan xedatutako baldintzak orokorrean betetzen dituela jasoko duenak.

Gainera, proposatutako esleipendunak ez du eduki beharko epe exekutiboan zorrik Elorrioko Udalarekin. Elorrioko Udalak, ofizioz, egiaztatuko du diruzaintzan dauden datuen bidez baldintza hori betetzen duela.

Betebeharrak Gizarte Segurantzarekin:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren ziurtagiri positiboa, APKLAren 14 artikuluan xedatutako betebeharrak guztiak betetzen dituela jasoko duenak.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko hamazortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik, araubide berezian alta emoteko betebeharrak salbuetsita dauden eta dagokion elkargo profesionaleko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean sartzea aukeratu dutenek edo erabakiko duten elkargokideek kasuan kasuko egoera hori jasoko duen Mutualitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Ziurtagiri hori aurkezteak ez du enpresa interesduna salbuesten baldintza-agiri honetan adierazitako gainerako betebeharrak justifikatzen, bere kargupean langileak dituenen. Langilerik ez badu, egoera hori erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatzen beharko du.

7.- Lizitzaileen erregistroa.

Enpresaburuak Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu baten datu-base nazional batean ageri denean –esate baterako, enpresaren espediente birtual batean, dokumentuen biltegiak elektronikorako sistema batean edo aurre-kalifikaziorako sistema batean-, eta horiek organo horietarako doan eskuragarri daudenean, enpresaburuak ez du izango aipatutako tokietan inskribatutako datuei buruzko egiaztagiririk edo dokumentu-frogaririk aurkezteko betebeharrak, Nahikoa izanez lizitzaileak esatea Erregistroan edo datu-basean inskribatuta dagoela.

Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Estatuko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko inskripzioak inskribatutako lizitzaileak salbuetsi egingo ditu –bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ez badago- kontratazio-deialdietan enpresaburuaren gaikuntza-baldintzekin lotuta honako hauek aurkeztetik: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, enpresa- edo lanbide-gaikuntza, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta sailkapena, eta orobat, kontratatzen debekuan sartuta ez egotearen gaineko ziurtagiria.

SPKLaren 139.1 artikulua xedatzen duenarekin bat, eskaintzak aurkezteak suposatuko du kontratazio-mahaiari baimena emotea Sektore Publikoko edo Euskadiko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean Erregistroan edo baita Europar Batasuneko kidea den estatu bateko operadore ekonomikoaren zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

8.- Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez osatzea

Lizitzaileek SPKLaren 75. artikulua xedatzen duenarekin bat beste enpresa batzuetako kaudimena eta bitartekoen bidez aurkezten badute, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

Erakunde horien idatzizko konpromiso bat baldintza-agiri honetako VI Eranskinean jasotako ereduaren arabera, ez bada SPKLaren 140.3 artikulua xedatzen duenarekin bat aurkeztu dela, zeinetatik ondorioztatzen den kontratuak irauten duen denborarako lizitzailearen eskura jartzen dutela kaudimena eta bitartekoak.

Lizitatzailleak kaudimenerako aurkeztu duen enpresa edo enpresek aurreko 1, 2, 6 eta bidezkoa bada, 3, 4, 5 eta 7 ataletan zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du/dute.

Kontratazio-organoak edo mahaiak eskatu ahalko die lizitatzaillei agiri guztiak edo batzuk aurkeztea zalantzak dituztenean horiek argitzeko, indarraldiari edo fidagarritasunari buruz ari garela, prozeduraren garapen onerako beharrezkoa denean, eta edozein kasutan, kontratuaren esleipena egin baino lehen.

Kontratazio-organoak kontratua esleituko du dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan, SPKLaren 150.3 artikulua xedatzen duen moduan.

SPKLaren 147.2 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratua esleitzeko irizpideak ezarri ondoren eskaintzen arteko berdinketa badago, jarraian zehaztuko diren irizpide sozialak aplikatuz ebatziko da, beti eskaintzak aurkezteko epea itxi zen momentura joanda.

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasun duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena, berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

Irizpide hauek aplikatu ahal izateko lizitatzailleek egiaztatu beharko dituzte, kasua bada, lan-kontratuen eta Gizarte Segurantzako kotizazioen bidez eta aipatutako gizarte irizpideak egiaztatzen duen zuzenbidean onartutako beste edozein agiri aurkeztuz.

28 klausula. Kontratua burutzea eta formalizatzea

Kontratua formalizatutakoan burutuko da.

Kontratua administrazio-agiri batean formalizatu beharko da eta lizitazioaren baldintzei lotuko zaio estu-estu eta eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen bada. Kasu honetan, kontratistaren kontura izango dira eskritura-gastuak. Eskritura egiten bada, kontratistak eskrituraren kopia legitimatu bat eta beste soil bat emongo dizkio Udalari formalizatu eta, gehienez, hilabeteko epean.

Kontratuaren kontra, kontratazio-arloko errekurtsio berezia tartekatzeko aukera egonez gero, kontratua ezingo da formalizatu jakinarazpena lizitatzaillei bialtzen zaionetik hasita 15 egun balioduneko epea igaro baino lehen edo, adjudikazio-egintzaren etenaldia bertan behera uzteko ebazpena emoten denetik Epe hau igarota, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek adjudikaziodunari eskatuko diote gehienezko bost eguneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita, kontratua formaliza dezala.

Gainerako kontratuetan, kontratua gehienez ere 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da lizitatzailleek esleipenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik, SPKLaren 151. artikulua xedatzen duen eran.

SPKLaren 153.4 artikulua xedatzen duenarekin bat, adjudikaziodunari egoztekoak zaizkion arrazoiak tarteko kontratua ez bada formalizatu aipatutako epearen barruan, lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik barik, zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin-behineko bermearekin ordainduko da, baldin eta hori jarri bada, SPKLaren 71. artikulua 2. apartatuko b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe.

III. TITULUA KONTRATUA EGIKARITZEA

I. Kapituluak.

Kontratistaren eskubideak eta betebeharrekoak.

Lehen atala. Kontratistari ordaintzea

29 klausula. Balorazioak eta ordainketak

Kontratistak eskubidea izango du benetan egikaritutako prestazioa emoteagatik, onartutako aldaketen eta Udalak emondako instrukzioak jarraituta, esleitutako kontratuaren prezioa jasotzeko. Ordaintzeko modua eta aldizkotasuna baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 7 atalean zehaztutakoak izango dira.

Ondorio hauetarako, SPKLaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalean xedatutakoarekin bat, kontratistak aurkeztuko duen faktura bakoitzean honako hauek zehaztu beharko ditu: kontabilitate publikoaren alorreko administrazio-organoren eskudunaren identifikazioa, kontratazio-organoa eta kontratu-hartzailearena. Baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 2 atala.

Zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta emon direla egiaztatzen duten agiriak emon ondoren, 30 egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, eta Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak xedatzen duenaren arabera.

Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko kontratistak faktura dagokion administrazioari erregistroan, faktura elektronikoaren gaineko indarreko araudiak xedatzen duenaren arabera, garaiz eta forman aurkezteko duen obligazioa beteta izatea beharrezkoa da, hau da, salgaia entregatu duenetik edo zerbitzua eman duenetik hogeita hamar eguneko epean.

Faktura, Fakturen Sarrerako Gune Nagusian aurkeztuko da, udal web orriaren bidez:

https://www.elorrio.eus/efaktur/empresas/index.action?request_locale=eu_ES

Faktura elektronikoan, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen erregelamendua onartzekoa, aurreikusten dituen datuak eta betebeharrak sartzeari gain, Hogeita Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren bigarren

atalean, eta fakturazio elektronikoari buruzko araudian aurreikusitako hauek sartu beharko ditu:

- Hartzailea: ELORRIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ELORRIO
- Kontratazio-Organoa: TOKIKO GOBERNU BATZARRA
- Kontabilitate publikoak eskumenak dituen administrazio-organoa: TOKIKO GOBERNU BATZARRA

DIR3 kodea honako hau da:

Bulego kudeatzailea: L01480329 ELORRIOKO UDALA
Tramite-unitatea: L01480329 ELORRIOKO UDALA
Bulego kontablea: L01480329 ELORRIOKO UDALA

210.4 artikulua xedatzen duenaren kaltetan gabe, Udalak, emondako zerbitzuen kontratuan jasotakoa jarraituz, adostasuna ziurtatzen duten agiriak onartu beharko ditu zerbitzua emon ondorengo hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Edonola ere, kontratistak ez badu aurkezten faktura dagokion administrazio-erregistroan hogeita hamar eguneko epean faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar egun igarotzen diren arte faktura zuzen aurkezten duen egunetik, baldin eta Administrazioak ez badu fakturarekiko onarpenik eman, hala badagokio ere, eta ez badu dagokion ordainketarik egin.

Segidako traktuko kontratuen kasuan, kontratuaren arduradunak, benetan egindako beharrak eta kontratatutako prezioak egiaztatu ondoren, APKLAOaren 199 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa jarraituz doitutako balorazioak egingo ditu. Balorazioak beti jatorrian egingo dira, eta zehaztu egingo dira dagokion aldiaren egin diren beharrak. Kontratistari emon beharreko entzunaldiarekin lotuta APKLAOak 149 artikuluan xedatutakora egongo da.

Egindako lanak ordaintzeko ziurtagiriak egingo dira dagokion balorazioa oinarri hartuta eta bideratuko ditu kontratuaren arduradunak dagokion aldiaren hurrengo hamar egunen barruan. Balorazioa nahitaez egin beharko da, nahiz eta egindako prestazioa txikia izan edo egin ez bada ere. Beste gauza bat izango da kontratua etetea erabaki bada.

Baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 7 atalean horrela aurreikusi bada, egindako beharren zatitako entrega egin aurretik balorazio partzialak egin ahal izango dira APKLAOaren 200 artikulua xedatzen duenarekin bat. Kasu honetan baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 7 atalean jasotakora egongo da.

Kontratistak, idatziz eskatu eta gero eskubidea izango du kontratuaren guztiaren ehuneko 20a kobratu ahal izateko kontratuaren hasieran, kontratua burutzeko prestatze-eragiketarako finantzatzeko konturako ordainketa gisa, hala nola instalazioak eta ekipo eta baliabide osagarriak erosi eta instalatzeko.

Prestaketa-eragiketak baloratzeko irizpideak eta modua, bai eta konturako ordainketak amortizatzeko plana ere, plegu honen I. eranskineko 7. atalean ageri dira.

Bigarren atala: Kontratistari eskatzekoak

30 klausula. Kontratistari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak Kontratuko baldintzetara lotuta egin behar da kontratua eta Administrazioak kontratistari kontratua interpretatzeko emandako jarraibideen arabera.

Kontratistaren kontura izango dira gastuak eta zergak, baita formalizatzearen gastuak eskritura publikoa egiten bada, eta baita kontratua gauzatzeko behar diren lizentzietatik eta baimenatarik eratorritako gastu guztiak. Bestalde, kontratua betetzeko enpresak egin behar izango dituen gastuak ere ordaindu beharko ditu, hau da, orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraio eta joan-etorrietatik datozenak, materialak, instalazioak, haren kontura ari den pertsonalaren sariak, egiaztatze eta entseguak egitekoak, tasak eta edozein motatako zergak, BEZa eta kontratuaren indarraldian kontratua egikaritzetik ondorioztatzen diren beste edozein.

Lizitatuak egiten dituzten eskaintzetan eta baita esleipen-proposamenean, ondore guztietarako, barne daudela ulertuko da kontzeptu ezberdinen gaineko edozein motatako zergak.

.Edozein kasutan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) dagokion zenbatekoa aparteko partidan sartuko da.

Hirugarren atala. Lan- eta sozial- eta gardentasun-arloak / Berdintasuna / Hizkuntza gaitakoak

31 klausula. Lanaren, gizartearen eta gardentasunaren betebeharrak Berdintasuna. Hizkuntza.

- a) Laneko, gizarteko eta gardentasuneko betebeharrak, eta laneko segurtasun eta osasunekoak

Kontratista behartuta dago lan, Gizarte Segurantzak eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzera. Halaber, behartuta dago honako hauek betetzera: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzekoa; Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa; Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legea; urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia, hala nola kontratua egikaritzen den bitartean promulgatzen diren arauak.

Kontratista kontratuaren denbora guztian behartuta geratzen da aplikatu behar duen hitzarmena kolektiboko arauak eta baldintzak betetzera.

Enpresa lizitatzailleek esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko dizkien hitzarmen kolektiboa zein izango den zehaztu beharko dute.

Halaber, apirilaren 7ko 3/2016 Legearen, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa, 5.2 artikulua xedatzen duenarekin bat, eskatu eta gero, informazio guztia emotera behartuta dago, legeak xedatzen dituen hala nola udal eremuan emoten diren arauetako betebeharrak betetzeko. **Berdintasuna. 250 langiletik gorako enpresen kasuan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana dutela egiaztatu beharko dute** Planaren edukia bat etorriko da martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko.

b) Hizkuntzaren gaineko betebeharrak.

Kontratuarekin lotutako beharrak, agiriak, proiektuak, jakinarazpenak, txostenak eta abar Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan entregatuko dira, eta hizkuntza ez sexista erabili beharko dute. **Lizitazio honetan, betebeharrak hori proiektuaren memoriari, baino ez dagokio.**

Udala kontratistarengana Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan zuzenduko da, eta ez dago itzulpenik egitera behartuta.

Obra- edo zerbitzu-lekuetan edo inguruetan hiritarrei zuzendutako oharrekin jarriko den edozein kartel edo ohar gutxienez euskaraz egongo da, eta bi hizkuntzetan jartzen denean, hau da euskaraz eta gaztelaniaz lehentasuna euskarari emongo zaio eta hizkien neurriak ere 1/3 handiagoak izango dira, eta gaztelaniazko testua ondo irakurriko dela bermatuta geratuko da.

Horietan erabilitako irudiak eta hizkuntza ez dute sexuaren araberako estereotiporik jasoko, ez dute inor iraindu edo umiliatu behar, eta ez dute hizkuntza sexistarik erabili behar.

Herritarrekin, enprekin edo udal beharginekin harremana izango duen pertsonalak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menderatuko ditu.

32 klausula.- Lan kontratuetan subrogazio-baldintzen gaineko informazioa

Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziatio kolektibo batek adjudikaziodunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharrak ezartzen dionean, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek lizitatzailleei informazioa emon beharko diete subrogazioaren eraginpeko lan-kontratuen baldintzei buruz, hain zuzen ere, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egiteko beharrezkoa. Halaber jasota utzi beharko da informazio hori eskatzen dela SPKLaren 130 artikulua xedatzen duena betetzeko.

Kontratu hau irabazten duen enpresa esleipendunak, subrogazioak eragiten dien langileak enplegatzen baditu, lehen aipatutako informazioa emotera behartuta geratuko da

kontratuaren arduradunak eskatzen dionean. Informazio horren atal gisa, nolahi ere, subrogazioaren xede diren langileen zerrendak emon beharko dira, honako hauek adieraziz: aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa eta langile bakoitzaren kategoriari, kontratu motari, lanaldiari, antzintasun-datari, kontratuaren mugaeguneratzeari eta urteko soldata gordinari buruzko xehetasunak, bai eta indarrean diren itun guztiak ere, subrogazioaren eraginpeko langileei aplikatu behar zaizkienak.

Edozein kasutan, subrogazio erregimenari buruz SPKLaren 130 artikulua xedatzen duenera egongo da.

SPKLaren 130 artikulua xedatzen duena betetzeko, lege subrogatzaera behartzeko aukera, hitzarmen kolektiboa edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboaren hitzarmena I Eranskinaren 1 atalean jasota daude, kontratuaren xede den prestazioa emoten ari den enpresak emondako informazioa VIII Eranskinean agertu beharko da, subrogazioaren eraginpeko lan-kontratuaren baldintzei buruz, hain zuzen ere, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egiteko behar den informazioa.

Era berean, eta, hala badagokio, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44 artikuluan ezarritakoaren kaltetan barik, kontratistak nahitaez erantzun behar die subrogazioaren eraginpeko langileei ordaindu gabeko soldatei, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioei ere, kontratua suntsiarazten bada eta subrogatzen badira ere. Azken honi, inondik inora ez dagokio betebeharrak hori. Kasu honetan, Administrazioak, aipatutako soldatak ez direla ordaindu egiaztatu ondoren, aipatutako Legeak 130.6 artikuluan xedatzen duena jarraituko du.

Kontratistak SPKLaren 130 artikulua xedatzen duen betebeharrak betetzen ez badu zigorrak ezarriko dira 192 artikulua ezarritako mugen barruan, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 30 atalak aurreikusten duenarekin bat.

Laugarren atala. Konfidentzialtasuna eta izaera pertsonaleko datuen babesa

33 klausula. Konfidentzialtasuna

Konfidentzialtasunarekin lotuta, SPKLaren 133 artikulua xedatzen duena aplikatuko da.

Kontratistak gorde beharko du kontratua egikaritzean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori emon bazaio informazio horri, edo, informazio mota dela-eta, halakotzat jo beharrekoa bada. Betebeharrak hau baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 33 atalean jasotako epean egongo da indarrean.

Enpresaburuek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jotako informazioa ezingo da hedatu, kontratazio-organoak hala erabaki duenean. Ondore hauetarako, lizitatuzailek gutun-azal bakoitzean sartu beharko dute konfidentzialak diren agirien zerrenda, konfidentzialtasunaren gaineko arrazoiak azalduz.

Enpresa esleipendunak kontratuaren zati bat hirugarren batekin kontratatzen duenean, kontratista nagusiak onartuko du kontratuaren egikaritzearen erantzukizun osoa Elorrioko Udalaren aurrean, gizarte eta lan arloetako betebeharrak betetzea barne.

34 klausula.- Izaera pertsonaleko datuen babesia

Enpresa esleipendunak eta bere langileak behartuta daude kontratuaren prestazioarekin lotuta lortu dituen izaera pertsonaleko datuen gaineko sekretu profesionala gordetzera. Betebehar honek indarrean jarraituko du kontratua burutu ondoren Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorrek xedatutakoarekin bat, hala nola Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta baita legea garatzeko araudiak.

Esleipendunak kontratua gauzatzeko orduan datu babesaren arloan bete behar dituzten betebeharren inguruko prestakuntza eta informazioa emon beharko die bere beharginei, batez ere sekretu betebeharretik eratorritakoena. Enpresa esleipendunak pertsonalki erantzungo du beharginak ez betetzeagatik egin daitezkeen lege arau-hausteen gainean. Esleipendunak eta bere langileek, kontratua betetzearen ondorioz emoten diren zerbitzuak egiten dituzten bitartean, zorrotz bete beharko dituzte beren beharra egiten duten udal bulegoetako segurtasun-agiriak.

Esleitutako kontratua dela eta izaera pertsonaleko datuak tratatzea barne badu, errespetatu egin beharko dira Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta hau garatzeko araudiak xedatutakoarekin bat etorritz, SPKLaren hogeita bosgarren xedapen gehigarriak xedatutakoarekin bat.

Bosgarren atala. Aseguruak eta kalteen ondoriozko erantzukizunak

35 klausula. Aseguruak

Kontratista behartuta geratuko da baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 17 atalean zehazten diren aseguru-polizak bere kontura kontratatzerantz bertan zehazten diren kontzeptuengatik, zenbatekoak, estaldurak, iraupena eta baldintzak.

36 klausula. Kontratatzailearen erantzukizuna kalteak eta galerengatik

Kalte eta galerengatik kalte-ordainaren erregimena SKPLaren 196 artikulua xedatutakoa izango da, eta honen arabera kontratatzailearen betebeharra izango da kontratua egikaritzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztien kalte-ordaina emotea. Baldin eta kalte eta galera horiek Administrazioak emondako agindu baten ondorio zuzenez eta berehala sortutakoak badira, Administrazioa izango da erantzule, legeetan aipatutako muga barruan.

Kontratista kontratuaren xede diren prestazioak zuzen ez egitearen ondorioz hirugarrenei sortutako kalte-galeren ordaina emoteko betebeharrak betetzen ez baditu, Administrazioak baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 30 atalean zehazten diren zigorrak ezarriko ditu.

II. KAPITULUA. Lagapena eta azpikontratazioa

37 klausula. Kontratuaren lagapena

Kontratu honetatik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahalko dizkio kontratistak baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira, eta lagapenak merkatuan lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu –SPKLaren 214.2 art.-. SPKLaren 214.1 b) artikulua xedatzen duenaren kaltetan gabe, ezingo da baimendu lagapena hirugarren bati egitea, horrek kontratistaren ezaugarrietan funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

Lagapen-kontratuaren aukerarekin lotuta, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 27 atalak jasotzen duenera egongo da.

38 klausula. Azpikontratazioa

Kontratistak, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 26 atalean aurreikusitakoaren arabera, hirugarrenekin itundu ahalko du prestazioaren parte bat emotea, salbu eta artikulua honen 2. apartatuaren d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera prestazioa edo haren zati bat kontratistak egin behar duenean, beti ere SPKLaren 215.2 artikulua ezarritako baldintzak betetzen badira.

Ezarritako baldintza hauek urratuz gero, edo azpikontratistaren gaitasuna egiaztatu ez bada, edo larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa presaz egin beharra dakarten inguruabarrak egiaztatu ez badira, ondorio hauetako bat izango da SPKLan ezarritakoen artean, kontratuaren egikaritzeak daukan eraginaren arabera, honako ondorioetako bat:

- a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 30 atalean ezarritakoaren arabera.
- b) Kontratua suntsiarazi ahalko da, baldin eta 211. artikulua 1. apartatuaren f) letreko bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Era berean, azpikontratistek eta hornitzaileei ordaintzeari buruz, SPKLaren 216 eta 217 artikuluetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzera behartuta geratuko da.

Edozein kasutan, azpikontratistak kontratista nagusiaren mende baino ez dira behartuta geratuko, eta ondorioz, honek bere gain hartuko du Administrazioaren aurrean kontratuaren gaineko erantzukizuna, berariazko administrazio-klausulen pleguan eta kontratuan jasotakoa jarraituz, SPKLaren 201 artikulua aipatzen dituen ingurumen mailako, gizarte mailako eta lan arloko betebeharrekoak barne.

Azpikontratistek, ez dute, inola ere, administrazio kontratatzailearen aurrean erantzukizun zuzenik izango kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzea dela-eta kontratistak haiekin hartutako betebeharrengatik.

Kontratatistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta beranduenez hura egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen aipatuko du, bai eta azpikontratatzaillearen izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere, eta behar beste justifikatuko du azken horrek gaitasuna duela hura egikaritzeko, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak eta esperientzia aipatuta.

Halaber, Udalari azpikontrata egingo duela esanez aurkeztuko duen idatziarekin batera, kontratatistak SPKLaren 71 artikuluaurreikusten dituen kontratatzeke debekuetako batean ez dagoela egiaztatu beharko du. Egiaztapen hori azpikontratatistak egindako erantzukizunpeko adierazpen bidez egin ahal izango da.

Kontratatista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro, bai eta azpikontratatista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

Kontratatistak behargineen ordezkariari azpikontratazioaren gaineko informazio emon beharko dio, laneko legeriak xedatzen duenarekin bat.

I Eranskinaren 26 atalean horrela eskatzen bada, lizitatzailleek aurkezten duten eskaintzan azpikontratatzeari aurreikusi duten zatia zein den esan beharko dute, hala, zenbatekoa nola, azpikontratatzeko dituzten enpresen izena edo enpresaren profila, kaudimen profesional edo tekniko baldintzekin lotuta. Kasu honetan, azpikontratuak ez badira eskaintzara doitzen, ezingo dira egin harik eta 20 egun igarotzen diren arte jakinarazpena egiten denetik eta aurreko paragrafoan adierazitako egiaztagiria aurkezten direnetik, non eta azpikontratu horiek ez diren aldeztu aurretik eta berariaz baimendu, eta, betiere, Administrazioak ez badu horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin epe horren barruan edo justifikatutako larrialdi-egoera dagoela.

SKKLaren 217.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatistak kontratazio-organoari, honek eskatzen dionean, formalizazioa egin ondoren kontratuan parte hartuko duten azpikontratatisten edo hornitzaileen zerrenda zehatua bialduko dio, ordainketarako epearekin lotuta lotura zuzena duten azpikontratazio- edo hornidura-baldintzekin batera. Bestalde, Administrazioak eskatuta, haiei ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, behin prestazioa amaituta, SPKLaren 216 artikuluan eta Merkataritza-Eragiketetan berankortasunaren aurkez borrokatzeke neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan. Betebehar hauek baldintza berezizat jotzen dira, eta ez betetzeak, ordenamendu juridikoak aurreikusitako ondorioak ekartzeaz gainera aukera emongo du baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 30 atalean aurreikusitako zigorrak ezartzeko.

Ez-betetzea dela eta SPKLaren 217.2 artikuluan aurreikusitako egiaztatze-jarduketak eta zigor-ezarpenak nahitaezkoak izango dira zerbitzu-kontratuetan balio zenbatetsia 5 miloi eurotik gorakoa bada edo azpikontratazioaren zenbatekoa kontratutako prezioaren % 30ekoa edo handiagoa bada, kontratatista nagusiarekin obra-atal edo –unitate jakin batzuk egiteko

konpromisoa kontratu bidez beren gain hartu duten azpikontratatentzako ordainketei dagokienez.

Berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarriak xedatzen duenarekin bat, 216 eta 217 artikuluetan xedatutakoaren kaltetan gabe, eta 215 artikuluko baldintzak betetzen badira, kontratazio-organoak Administrazio-Klausulen baldintza-agirietan aurreikusi ahal izango ditu azpikontratistei ordainketa zuzenak egitea. Kontratu hau baldintza-pleguaren I Eranskinaren 26 atalean jasotakora egongo da.

Azpikontratataren alde egindako ordainketak kontratista nagusiaren kontura egindakotzat joko dira, eta, administrazio kontratatzaileari dagokionez, kontu onerako ordainketak izango dira horiek ere, obra-ziurtagiriek bezalaxe.

Administrazioari ezingo zaio inolaz ere egotzi kontratista nagusia azpikontratatik aurkeztutako fakturarekin ados ez egoteagatik ordainketan gertatutako atzerapena.

III. KAPITULUA Kontratua egikaritzea

Lehen atala. Arriskua eta mentura

39 klausula. Arriskua eta mentura

Kontratua kontratataren arrisku eta menturara egikarituko da, SPKLaren 197 artikulua xedatzen duenarekin bat.

Bigarren atala: Kontratua betetzea

40 klausula. Lan-programa

Lan-programa aurkezteko betebeharrekoa baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 9 atalean zehaztuko da.

Kontratatik, I Eranskinaren 9 atalean zehazten duen epean, kontratua formalizatzen denetik hasita, dagokion kontratazio-organoari lan-programa aurkeztuko dio onartzeko. Lan-programan zerbitzuaren edukiari erantzun ahal izateko egingo diren beharrak agertuko dira, eta kasua bada, lan edo behar bakoitza egiteko behar izango dituen epeak. Ondorio hauetarako, erabiliko diren denbora-unitateak astea eta hilabetea izango dira, preskripzio teknikoan agirian beste ezer esaten ez bada behintzat. Lan-programak kontratuan finkatutako data edo epe guztiak errespetatuko ditu, eta plegu hartan eskatutako datu guztiak izango ditu.

Kontratazio-organoak hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta aurkeztutako lan-programaren gainean, kontratua betetzeko beharrezkoak ikusten dituen aldaketak, handiagoketa eta definizio-maila sartu ahal izango ditu.

Zerbitzuak ondo garatu ahal izateko esleipendunak beste erakunde edo erakunde publiko batzuekin harremanak ezartzea beharko balu, kontratazio-organoaren aurretiazko baimena behar izango du.

Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratista behartuta geratzen da lan-programa hau eguneratzera.

41 klausula. Lan akastunak edo txarto egindakoak

Zerbitzuak jaso arte, esleipenduna izango da kontratatutako zerbitzuak zuzen egitearen erantzulea eta baita akatsena, akatsik balego. Eta Administrazioaren ordezkariak zerbitzuak egiten izan diren bitartean horiek aztertu edo onartu izana egiaztagiri, balorazio edo ziurtagiri partzialekin lotutako inguruabarrek ez dute adjudikazioduna erantzukizunetatik salbuetsiko, ez eta eskubiderik emongo.

Kontratatistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratuan zehaztutako prestazioen ez betetze partziala egin duenean, Administrazioak, kasuaren inguruabarrak ikusi eta gero, bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 30 atalean kasu hauetarako ezarritako zigorrak ezartzea.

Hirugarren atala. Obren proiektuak egiteko kontratuan errakuntzak zuzentzea. kalte-ordainak eta erantzukizunak

42 klausula. Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpondu

SPKLaren 314 artikuluan xedatutakoarekin bat, zerbitzu-kontratua obra-proiektu bat osorik egiteko baldin bada eta kontratistaren erruz akatsik, trakeskeria teknikorik edo oker materialik baldin badago, egin beharreko zer edo zer egin gabe geratu baldin bada edo lege edo erregelamendurik urratu baldin bada, kontratazio-organoak aginduko dio egin beharreko zuzenketak egiteko. Horretarako, epe jakin bat utziko dio, baina inoiz ez bi hilabete baino luzeagoa.

Epe hori igaro arren akatsak zuzendu ez badira, Administrazioak, nondik norakoak kontua hartuta, kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, edo kontratistari beste epe bat ematea. Suntsiaraztea erabakitzen badu, bermea bahitu beharko da, eta kontratistak Administrazioari kontratuaren prezioaren % 25ekoaren pareko kalte-ordaina emoteko betebeharra izango du.

Epe barri bat emotearen aldeko erabakia hartzen badu, hau hilabetekoa izango da, luzaezina, eta kontratistak Administrazioaren kontratuaren prezioaren % 25ekoaren pareko kalte-ordaina emon beharko dio.

Ez-betetze barri bat sortuz gero, kontratua suntsitu egingo da, eta kontratista behartuta geratuko da Administrazioari itundutako prezioaren berdina izango den kalte-ordaina ordaintzera, eta bermea galduko du.

Kontratistak, azken epea emon aurretik edozein unetan proiektua egiteari uko egingo balio, kontratuaren prezioaren erdiari dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko du, eta bermea galduko du.

43 klausula. Obrak egitean gertatutako desbideratzeen ondoriozko kalte-ordainak eta proiektuaren akats edo okerren ondoriozko erantzukizunak

Proiektuan aurreikusitako obra egiteko aurrekontua obraren benetako kostutik % 20a baino gehiago urruntzea gerta daiteke, goitik zein behetik, kontratista-aholkulariari egotz dakizkiokeen errakuntzen edo egin gabekoen ondorioz. Halakoetan, proiektua egiteko kontratuaren prezioa gutxituko da, kalte-ordain gisa, desbideratzearen ehunekoaren arabera, gehienez ere haren erdiaren parera iristen den kopurura arte. Kalte-ordainetarako baremoa SPKLaren 315.1 artikuluan agertzen dena izango da.

Kontratistak aipatutako kalte-ordainaren zenbatekoa hilabeteko epean ordaindu beharko du dagokion ebazpenaren jakinarazpena egiten denetik. Ebazpena emongo da espedientea izapidetu ondoren interesduna entzun eta gero.

Aurreko apartatuan, SPKLaren 314 artikuluan eta lege bereko 233.4. bigarren paragrafoan aurreikusitakoa alde batera utzita, kontratistak erantzun beharko du obrak egin edo ustiatzean kontratazio-organoari zein hirugarrenei sortutako kalte-galerengatik, proiektuko akats eta eskasia teknikoengatik edo berak egin eta berari egotz dakizkiokeen errakuntza materialengatik, hutsegiteengatik eta legezko zein erregelamenduzko aginduen aurkako arau-hausteengatik.

Kontratistari eska dakiokkeen erantzukizunetik datorren kalte-ordaina, bestalde, sortutako kalte-galeren zenbatekoaren % 50era artekoa izango da, gehienezko muga proiektuaren itundutako prezioa bider bost, eta SPKLaren 315.2 artikuluan ezarritakoa jarraituz eskatuko da.

Laugarren atala. Epea betetzea eta berandutzeagatiko zigorrak

44 klausula. Epea betetzea eta berandutzeagatiko zigorrak

Kontratistak kontratua egikaritzeko finkatutako azken epearen barruan bete behar du kontratua; elkarren jarraian jarritako epe partzialak ere bete egin behar ditu.

Baldin eta atzerapena kontratistari egoztekoak ez zaizkion arrazoiengatik sortu bada baina hura prest azaltzen bada bere konpromisoak betetzeko kontratua egikaritzeko hasieran jarritako epea luzatuz gero, kontratazio-organoak epe hori emongo dio, galdutako denboraren bestekoa izango dena gutxienez ere, kontratistak berak epe laburragoa eskatzen ez badu behintzat, SPKLaren 195.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta betebeharrekoak eta izapideak APKLAOaren 100 artikulua xedatzen duenaren arabera arautuko dira. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du, zeinetan atzerapena kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik izan zen esango duen.

SPKLaren 29.3 artikulua xedatzen duenarekin bat, enpresaburua prestazioa emoten berandutzen denean, kontratazio-organoak epea luzatu ahalko dio, baina dagozkion zigorrek ere jarri ahalko dizkio; aplikagarria izanik SPKLaren 192. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik atzeratzen denean epe guztia edo partziala betetzeari buruz ari garela baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 8 atalean aurreikusitakoa beteko da eta Administrazioak, nondik norakoak kontua hartuta, kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, edo baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 30 atalean agertzen diren zigorrek ezartzea.

Atzerapenarengatik zigorrek kontratuaren prezioaren 100eko 5en multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua ebazteko edo zigor berriak jarritz gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu honetan, kontratazio-organoak kontratua burutzeko estimatu duen beste denboraren luzapena emongo du.

Halaber, Administrazioak ahalmen berberak izango ditu kontratistak epe partzialen berandutzea delako, guztirako epea ezingo dela bete uste izateko nahiko arrazoi ikusten duenean.

Administrazioak, kontratistak kontratuan agertzen diren epe partzialak betetzen ez dituzenean, aukeratu ahal izango du kontratua ebatzi ala baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 30 atalean agertzen diren zigorrek jarri.

Ez-betetze partzialetan, betetze akastunetan eta berandutzeetan, zigorra aurreikusita ez badago edo aurreikusita egonik ere Administrazioari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galerak ordaintzeko exijituko dio hark kontratistari.

Bosgarren atala. Kontratuak aldatzea eta etetea

45 klausula. Kontratua aldatzea

Administrazio-kontratuak interes publikoko arrazoiengatik baino ezingo dira aldatu, SPKLaren Bigarren Liburuaren I. tituluaren, I. kapituluaren 3. Atalaren 4. azpiatalean aurreikusitako kasuetan eta moduan, SPKLaren 207 artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

Kontratazio-organoek egindako administrazio-kontratuak, indarrean daudenean, SKKLaren 203.2 artikuluan zehaztutako kasuetan baino ezingo dira aldatu.

Kontratua aldatu ahal izango da administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusita moduan, baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 28 atalean horrela jaso bada, SPKLaren 204 artikulua xedatzen duen eran eta edukiarekin.

Aldaketa horiek eragin ahal izango dute baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 28 atalean ezarritako gehienezko ehunekoan kontratuaren hasierako prezioarekin lotuta.

Kontratazio-organoak erabakitako aldaketa kontratistentzat derrigorrezkoak izango dira SPKLaren 206 artikuluan aurreikusi moduan, eta formalizatu beharko dira SPKLaren 153 artikuluan xedatutakoaren arabera eta argitaratu beharko dira aipatutako legearen 207 eta 63 artikuluetan jasotakoa jarraituz.

Erregimenari buruz SPKLaren Bigarren Liburuaren I. tituluaren, I. kapituluaren 3. Atalaren 4. azpiatalean eta SPKLaren 191 eta 203 artikuluek xedatzen dutenera egongo da, hala nola erregelamendu bidez xedatutakora.

SPKLaren 309 artikuluan xedatutakoarekin bat, prezioa gauzatze-unitateen bidez ezartzen denean, ez da aldatetzat hartuko, baldin eta horrela ezarri bada administrazio-klausula partikularren agirian, kontratuan aurreikusitako unitateen kopurutik egiaz gauzatutako kopuruan bakarrik gertatzen den aldaketa, prestazioa modu egokian emoten den bitartean gertatutakoa betiere; halakoak likidazioan jaso ahalko dira, kontratuaren prezioaren % 10etik gorako gastua igoera sortzen ez badute.

Kontratu honetan unitate-kopurua prezioaren % 10era arte igotzeko aukera baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 5 atalean ezartzen da.

46 klausula. Kontratuaren etetea

Administrazioak, interes publikoko arrazoiak tarteko, kontratuaren egikaritzea etetea erabaki ahal izango du. Modu berean, kontratua eteteko erabakia hartuko du SPKLaren 198.5 artikuluan zehaztutako inguruabarra emongo balitz. Kontratua eteteko ondoretarako SPKLaren 208 artikulua xedatzen duenera egongo da, hala nola, APKLAOaren prezeptu bateragarrietara.

SPKLaren 208 artikulua xedatzen duenarekin bat, Administrazioak kontratua etetea erabakiko balu, edo SPKLaren 198.5 artikulua xedatutakoa aplikatu ondoren etenda geratuko balitz, Administrazioak kontratistari honek jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 29 atalean aurreikusi moduan.

IV. KAPITULUA. Kontratua azkentzea

Lehen atala. Kontratua suntsiaraztea

47 klausula. Kontratua suntsiaraztea

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLaren 211 eta 313 artikuluetan jasotakoak dira, baita baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 31 atalean aurreikusitakoak.

SPKLaren 211.2 artikulua xedatzen duenarekin bat, kontratua suntsiarazteko kausa bat baino gehiago dagoen kasuetan, azkentzearen ondorio ekonomikoak direla-eta ondore desberdinak dituztenak, denboran lehenengo agertu direnei erantzun beharko die.

Kontratua suntsiarazteko erabakia kontratazio-organoak hartuko du SPKLaren 212.1 artikulua xedatzen duenarekin bat, erregelamenduz ezarritako eran izapidetutako prozedura bidez.

Kontratataren erruz kontratua bete gabe gelditu eta suntsiarazten bada, bahitu egingo zaio bermea, eta, gainera, sortutako kalte-galeren kalte-ordainak emon behar dizkio Administrazioari, bahitutako bermearen gaintetik doan zenbatekoraino. Kontratatik ordaindu behar dituen kalteak eta galerak zehaztea kontratazio-organoari dagokio arrazoitutako erabaki bidez egingo duena entzunaldia emon ondoren, eta kontuan hartuko ditu beste faktore batzuen artean proiektatutako inbertsioaren atzerapena eta Administrazioari sortuko dizkion gastu handiagoak.

Suntsiarazteko arrazoiak ezartzeko SPKLaren 212 artikulua xedatzen duenera egongo da eta ondoretarako SPKLaren 212 eta 313 artikuluek xedatzen dutenera, eta baita, kasua bada erregelamenduko garapenak xedatzen duenera.

Bigarren atala: Zerbitzuak emotea

48 klausula. Aurkezteko era

Esleipenduna, behartuta geratzen da Administrazio-Klausula Partikularren Agirian zehazten diren kontratuaren xede den beharraren ale osoak aurkeztera, aipatutako baldintza-agirian zehaztutako formatuan eta neurrietan, eta planoak.

49 klausula. Zerbitzuak emotea eta beharrak entregatzea

Kontratatik kontratuaren xedea aurreikusitako epearen barruan egin izan beharko du. Kontratuaren pertsona arduradunak aurkeztutako dokumentazioa aztertu beharko du eta preskripzio teknikoak bete direla estimatuko balu, zerbitzua hartzeko proposamena egingo du.

Kontratuaren preskripzio teknikoak ez direla bete estimatu badu, kontratatari, idatziz, emongo dizkio instrukzio zehatzak eta zehaztuak antzemandako akatsak edo hutsuneak

konpontzeko. Idatzi honetan zuzenketak egiteko epea zehaztuko da hala nola uste dituen oharrak.

Kontratuaren arduradunak egindako oharren kontrako erreklamazioa egingo balu kontratistak, kontratuaren arduradunak kontratazio-organoari berak egindako txostenarekin batera proposamena bialduko dio kontratazio-organoari, eta honek ebatzi egingo du.

Kontratistak kontratuaren arduradunak egindako oharren kontra idatzizko erreklamaziorik egingo ez balu, egindako oharrekin ados dagoela ulertuko da eta behartuta geratuko da akatsak zuzentzera.

50 klausula. Jaso eta likidatu

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazioa osorik eta kontratuko baldintzen arabera eta Administrazioaren nahierara gauzatu denean.

Aurreko klausulan zehaztu diren izapide guztiak bete ondoren eta APKLAOaren 204.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, uste bada kontratuaren xede den prestazioak baldintza guztiak betetzen dituela, jaso egingo da.

Jaso-edo adostasun-egintza formal eta positiboa kontratuaren xedea entregatu edo betetzen denetik hurrengo hilaren barruan egingo du Administrazioak.

Aipatutako egintza hori udal-funtsen kontu-hartzaitzari jakinaraziko zaio, hark inbertsioa benetan egiaztatzeke bere eginkizunen barruan.

Berme-epea amaitzen ez den bitartean, esleipenduna izango da kontratuaren xede den prestazioa behar bezala egitearen eta bertan egon daitezkeen akatsen erantzulea. Eta Administrazioaren ordezkariak zerbitzuak egiten izan diren bitartean horiek azertu edo onartu izana egiaztagiri, balorazio edo ziurtagiri partzialekin lotutako inguruabarrek ez dute adjudikazioduna erantzukizunetatik salbuetsiko, ez eta eskubiderik emongo

Kontratistaren prestazioak ez baditu betetzen beharrezkoak diren baldintzak, idatziz, instrukzio zehatzak emongo zaizkio antzemandako akatsak konpontzeko, eta zuzenketa horiek emongo zaion epearen barruan betetzeko, eta ez da jasoko emondako instrukzioak bete ez bitartean.

.

Egindako lanak ez badira kontratatutako zerbitzura egokitzen kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, kontratazio-organoak atzera bota ditzake eta salbuetsita geratuko da ordaintzeko betebeharretik, edo ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du, ordaindu badu.

Harrera-edo adostasun-akta jaso ondorengo 30 eguneko epearen barruan erabaki eta jakinarazi behar zaio kontratistari kontratuaren likidazioa, kasua bada eta kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean, eta, hala behar badu, hari dagokion saldoa ordaindu. Hala

ere, harrera hori gertatu ondorengo egunen batean jasotzen badu faktura, kontratistak faktura hori dagokion erregistroan eta faktura elektronikoari buruzko indarreko arauak dioen moduan aurkezten duen egunetik aurrera kontatuko da 30 eguneko epea.

Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak eskubidea edukiko du berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko, Merkataritza-eragiketako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

51 klausula. Beharren jabetza

Kontratua dela eta egindako azterlan eta dokumentu guztiak Elorrioko Udalaren jabetzakoak izango dira, eta hala erabakitzen badu erreproduzitu, argitaratu eta hedatu ahal izango ditu osorik edo zatika, esleipendunak kontra egiteko eskubiderik esateko barik.

Esleipendunak, kontratu honetaz ari garela, ezingo du egindako azterlanen eta dokumentuen erabilerarik edo hedapenik egin, ez osorik, ez zatika, zuzen edo laburtuta kontratazio-organoak baimenik ez badio behintzat.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide baten babespean dauden produktuak garatzeko eta eskaintzeko zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori Elorrioko Udalarari laga beharra.

Hirugarren atala. Berme-epea

52 klausula. Berme-epea

Berme-epea jaso- edo adostasun-egintza egunetik kontatuko da eta baldintza-agiri honetako I Eranskinaren 32 atalean zehaztutakoa izango da.

Aipatutako epearen barruan, behin betiko bermeak SPKLaren 110 artikuluan xedatutako eta aplikatzekoak diren kontzeptuei erantzungo die.

Harrera partzialak aurreikusi diren kasuan, hartutako zatien berme-epea harrera partzial bakoitza hartu den egunetik kontatuko da.

Baldin eta, berme-epean, egiaztatzen bada lanetan badela hutsik edo akatsik, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari horiek konpontzeko erreklamatzeko.

Berme-epea amaituta Administrazioak aurreko apartatuetan aipatutako konponketak edo salaketak egin barik, kontratista erantzukizunetik salbuetsita geldituko da emondako zerbitzuaz ari garela.

Laugarren atala. Administrazioaren prerrogatibak eta ahalmenak eta Errekurtsoak

53 klausula. Administrazioaren prerrogatibak eta ahalmenak

Kontratazio-organoak SPKLAN aipatutako mugen barruan eta bertan adierazitako baldintzei eta ondoreei lotuta, prerrogatiba dauka administrazio-kontratuak interpretatzeko, kontratu horiek betetzean sortutako zalantzak ebazteko, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzeko, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egoztekoa zaion erantzukizuna deklaratzeko, kontratuaren egikaritzea eteteko, kontratua suntsiaraztea erabakitzeko eta suntsiaraztearen ondoreak zehazteko.

Kontratazio-organoak, halaber, kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmena edukiko du kontratua egikaritzen den bitartean, lege honek kontratu mota bakoitzerako ezartzen dituen mugekin. Ikuskatze-ahalmen horrek inolaz ere ezingo du berekin ekarri kontratazio-organoak eskubide orokorra izan dezan kontratistak bere jarduerak garatzen dituen instalazio, bulego eta gainerako tokiak ikuskatzeko, salbu eta toki horiek eta haien baldintza teknikoak erabakigarriak direnean kontratuaren objektua diren prestazioa garatzeko. Kasu horretan, kontratazio-organoak berariaz eta xehetasunez justifikatu beharko du hori espediente administratiboan.

Aurrerago ezarritako prerrogatibekin lotutako erabakiak hartzeko prozedurak SPKLaren 191 artikuluan xedatutakoaren arabera jarraituko dira.

Kontratazio-organoak hartuko dituen erabakiek amaitu egingo dute administrazio-bidea eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

54 klausula. Errekurtsoak

SPKLaren 44 artikulua aurreikusten dituen kasuetan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen errekurtso berezia aurkeztea aukerakoa izango da, hau tartekatzeko epea 15 egun baliodunekoa izanik, eta SPKLaren 50 artikulua aurreikusten duen terminoetan tartekatuko da. Errekurtsoaren gaineko arduraren eskumena duen organoa Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoa izango da.

Errekurtso berezi bidez aurkaratu daitezkeen jarduketan aurka ezingo da administrazio errekurtso arruntik tartekatu.

Administrazio Publikoen kontratuak adjudikatzeko prozeduretan emondako egintzen aurka, 1. apartatuan jasotako baldintzak betetzen ez dituztenean, errekurtsoa tartekatu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

ADMINISTRAZIOA / EGUNA ETA SINADURA

ADOS:

ESLEIPENDUNA / EGUNA ETA SINADURA

I ERANSKINA
KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

TITULUA: “ELORRIKO HAURRESKOLAK ERAIKINA ERABERRITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA IDAZTEA, KANPO ALDEAREN ERREFORMA BARNE (PATIOA), E1_DEF. PROTOTIPOAREN ARABERA”. PROZEDURA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA

1.- Kontratuaren xedearen definizioa: (5. klausula)

CPV kodeak: 71000000-8 Arkitektura-, eraikuntza-, ingeniari- eta ikuskatze-beharrak.

Lote edo sortaka zatitzea: EZ

Kontratua sortaka zergatik ez den zatituko justifikatu: zerbitzua amaituko da proiektu bat idatzi eta gero, eta ez da zatika egingo.

Erreserbatutako kontratua SPKLaren 4. X.G.arekin: EZ

Elorriko Udalak eraberritzeko egikaritze-proiektu honen idazkera lizitatzea erabaki du tituluan agertzen den eraberritze obrak egin ahal izateko.

2.- Administrazio-organoak. (Klausulak 2, 27 eta 29)

Kontratazio-Organoa:

Izena: Tokiko Gobernu Batzarra.

Helbide postala: Herriko Plaza zg/gb – 48230 ELORRIO

Kontabilitate publikoetan eskumenak dituen administrazio-organoa: Elorriko Udala.

DIR3 kodea honako hau da:

Bulego kudeatzailea: L01480329 ELORRIKO UDALA

Tramite-unitatea: L01480329 ELORRIKO UDALA

Bulego kontablea: L01480329 ELORRIKO UDALA

Kontratuaren xede den organo hartzailea

Izena: Elorriko Udala

Helbide postala: Herriko Plaza zg/gb – 48230 ELORRIO

3.- Kontratuaren jarraipenaz eta egikaritzeaz arduratuko den unitatea eta kontratuaren arduraduna (3 eta 4 klausulak)

Unitate arduraduna: Udal Bulego Teknikoa

Kontratuaren erantzulea: Udal arkitektoa: M^a José Olabarria andrea.

4.- Balio estimatua. (6 eta 18 klausulak)

Balio estimatua: 40.000,00 €, BEZ % 21ekoa kanpoan.

Erregulazio harmonizatuari lotuta: Ez.

5.- Kontratuaren lizitazio-aurrekontua eta kreditua. (Klausulak 7, 8 eta 45)

Aurrekontu aplikazioa: 2020.3200.649.01

Lizitaziorako aurrekontua: 40.000,00 €, gehi % 21eko BEZari dagozkion 8.400,00 €.

6.- Prezioak berrikustea (12 klausula).

Berrikusi: EZ

7.- 7.- Ordainketen erregimena (29 klausula).

Elorriko Udalak kontratuaren zenbatekoa ordainduko du kontratua amaitu eta proiektua aurkeztu ondoren, udaletxeko bulego teknikoak adostasuna emon eta gero.

8.- Egikaritzeko epea eta lekua. (Klausulak 9, 10, 22 eta 44)

Gehienezko epea guztira: SEI HILABETE kontratuaren agiria formalizatzegunaren hurrengo baliodun egunetik hasita.

Udal bulego teknikoak proiektua gainbegiratzeko behar dituen denborak ez dira kontuan hartuko aipatutako gehienezko epean. Aldiz, bai konputatuko dira, aipatutako gehienezko epearen barruan, proiektuari egin beharreko berrikuspen guztietan eskatzen diren zuzenketak egiteko behar izango diren epeak. Aipatutako epe hori kontatzen hasiko da udal bulego teknikoak kontratistari dagokion berrikuspenera bialdu eta hurrengo baliodunetik.

Luzapena: EZ

Epe partzialak: EZ

Harrera partzialak: EZ

9.- Lan-programa. (40. klausula)

Lan-programa bat aurkezteko betebeharra: EZ

10.- Prozedura eta adjudikazio-irizpideak (17 eta 19 klausulak)

Aurretiazko izapidea: EZ

Izapidea: arrunta.

Prozedura: irekia.

Esleipen-irizpideak: Hainbat irizpide objektiboak eta subjektiboak.

**11.- kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa. (13, 14, 15 eta 27 klausulak).
Baliabideak atxikitze konpromisoa.**

Kaudimena egiaztatzea: BAI

Kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren egiaztatzea: Gutxieneko kaudimen baldintzak eta agiri bidez egiaztatzea:

- 87.1.a artikulua.- Urteko negozio-bolumena kontratuaren xedeari dagokion jardueren eremuan (eraikina eraberritzeko egikaritze-proiektua idaztea) gutxienez ere kontratuaren balio zenbatetsiaren guztizko 40.000,00 euroko (BEZik barik) aurrekontu batekin, azken hiru (3) urteetako baten batean.

- 87.1.b artikulua: arrisku profesionalak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzearen egiaztatzea, 300.000,00 eurokoa edo gehiagokoa.

Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea: Gutxieneko kaudimen baldintzak eta agiri bidez egiaztatzea:

Lizitatuzaileak egiaztatu egin beharko du, txandaka, aukeratzen duen eran:

- a) Azken hiru (3) urteetan eraikinak eraberritzeko proiektuak idatzi izana, guztira 770.243,00 eurotik (BEZik barik) gorako aurrekontu metatua dutenak (obretan), zenbateko hau delako eraberritzea gura den eraikinean egingo diren obrek izango luketen gutxi gorabeherako aurrekontuari dagokion zenbatekoa.

edo

- b) Azken hiru (3) urteetan eraikinak eraberritzeko hiru egikaritze-proiektu idatzi izana.

Kasu bakoitzean, egiaztatu behar diren beharrak hasi eta amaitu egin behar izan dira, eta guztiz amaituta egon behar dute, aipatutako zenbatekoetan.

Kaudimen-baldintza hauek eskaintza hobereana egin duen lizitatuzaileak baino ez ditu aurkeztu beharko.

Operadore ekonomiko barrien kasuan (bost (5) urte baino gutxiagoko antzintasuna) honako kaudimen tekniko edo profesionala izan beharko dute:

Kontratuan parte hartuko duten teknikariak esatea, eta zehatzago esanda, zerbitzuaz zuzenean arduratuko diren teknikari arduradunena, eta titulazio akademikoak eta profesionalak, gutxienez baliabide pertsonalak atxikitzeko konpromisoa jasotzen duen hurrengo klausulan jasotakoak izango direnak, gutxienez.

12.- Kaudimen baldintzen gaineko zehaztasunak Jarriko dituen baliabideen gaineko konpromisoa (SPKLaren 76 artikulua): BAI (16 eta 24 klausulak)

- a) Lizitatzailerek sartu beharko dituzte kontratuaren xede den obrako pertsonal erantzulearen izenak eta lanbide-gaitasuna: Bai.
- b) Kontratua gauzatzeko erabiliko diren giza baliabideen konpromisoa: Bai.

SPKLaren 76 artikulua bigarren paragrafoan xedatzen duenean oinarrituta, gutxienerako betebeharreko hauek ezartzen dira proiektua idatzi behar duenarekin lotuta:

- Proiektua idatziko duenaren titulazioa: Arkitektoa
- Esperientzia: Gutxienez bi (2) urteko esperientzia eraikuntza proiektuak idazten.

Baliabide pertsonalen aipatutako konpromisoa funtsezko obligazioa da 9/2017 Legearen (SPKL) 211 artikulua xedatzen duenerako.

13.- Enpresa gaikuntza. (13 eta 27 klausulak)

Enpresa-gaikuntza: BAI

14.- Behin-behineko bermea (20 eta 24 klausulak)

Behin-behineko bermea: EZ

15.- Behin betiko bermea (21. klausula)

Bai - prezioaren % 5a.

Prezioan atxikipena: EZ

16.- Berme osagarria. SPKLaren 107.2 artikulua) (21 klausula)

Berme osagarria: EZ

17.- Aseguru-polizak. (27 eta 35 klausulak)

Aseguru polizak: Bai.

Polizak aurkezteko unea: Kontratua esleitu aurretik

18.- Eskaintza elektronikoa egiteko epea eta era: (23 eta 24 klausulak)

Proposamenak aurkezteko epea: kontratatzailearen profileen lizitazioaren publizitatea egiten denetik 20 egutegiko egun.

Proposamenak Hiru gutun-azal elektronikoetan aurkeztu beharko dira: (A) gutun-azala "ALDEZ AURREKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK", (B) beste gutun-azal bat "ZIFRA EDO EHUNEKO BIDEZ BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK", eta (C) hirugarren eta azken gutun-azala "ZIFRA EDO EHUNEKO BIDEZ BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK".

"B" gutun-azalean sartuko den eskaintza teknikoak gehienez 30 orrialde edukiko ditu (15 orri, alde bietatik idatzita, edo 30 orri, alde batetik idatzita) A4 neurriko papera, letra-tipoa Arial 12, lerroarte bakuna eta goi eta behe aldeetako marjinak 3 cm, eta ezker eta eskuma aldeetakoak 2,5 cm. DIN A3 hirurak aipatutako gehienezko 30 orrialdeen barruan sartuko dira.

19.- Adjudikatzeko hainbat irizpide (19 eta 25 klausulak)

Izaera intelektualeko prestazioak dauzkaten zerbitzuen kontratu-prozeduretan kalitatearekin lotutako irizpideei emon ahal zaion puntuazioaren gutxieneko % 51ko proportzioa izango da. (9/2017 Legearen 145.4 artikulua).

Adjudikatzeko hainbat irizpide:

A. ZIFRA EDO EHUNEKO BIDEZ BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK: 40 puntu gehienez: Memoria teknikoa.

Haztapena: 40 puntu gehienez.

Irizpidearen balorazioa egiteko metodoaren deskribapena: Honako azpi-irizpide hauek baloratuko dira:

- **1 azpi-irizpidea: DAGOEN DOKUMENTAZIOAREN ANALISIA**

Haztapena: 20 puntu.

Irizpidearen balorazioa egiteko metodoaren deskribapena:

“Elorrioko Herri Ikastetxearen diagnostikoa. Behin-betiko txostena 17/09/2020 // R1” izeneko agiria bolumenak, banaketa eta sestrak zehazterakoan aurreproiektutzat hartu behar izango dena, eraberritze egikaritze-proiektua idazteko abiapuntua izango da. Kontuan hartuta, diagnostikoaren dokumentuak eraikina erabilera jakin batera egokitzeko irtenbide bat emoten duela, argumentatutako eta arrazoitutako kritika konstruktiboa erakusten duen analisi- eta azterlan-maila baloratuko da, honako hau zehatzago:

- Analisi- eta azterlan-maila. Detektatzea puntu gatazkatsuak izan daitezkeen ahalik eta puntu gehienak, ahuleziak edo zailtasunak, bere egokitasuna, bideragarritasuna eta egokitzapena, aldi berean diagnostikoan proposatutako soluzioen hobekuntzak planteatuz (8 puntu gehienez).
- Hirigintza-kalitate formalari eta proposamenaren, diseinua eta planteatutako soluzioa ezartzeari buruzko alderdi esanguratsuenak (6 puntu gehienez).
- Honako hauei buruzko kontsiderazioak:

Edo irisgarritasuna sustatzeko araudiari egokitzapena (2 puntu gehienez).

Edo Eraginkortasun energetikoa eta jasangarritasun irizpideak sartzea eraikinean (2 puntu gehienez).

Edo genero ikuspegia (2 puntu gehienez).

Azpi-irizpide honen xedea ez da aldaketa garrantzitsuak egitea, ez eta funtsik gabeko kritikarik egitea honako dokumentu honetan: “Elorrioko Herri Ikastetxearen diagnostikoa. Behin-betiko txostena 17/09/2020 // R1”, baizik eta, analisisian sakontzea.

- **2 azpi-irizpidea: INGURUA EZAGUTZEA ETA EREMU BARRUKO ERAIKINAK**

Haztapena: 10 puntu.

Irizpidearen balorazioa egiteko metodoaren deskribapena:

Honako hauen ezagutza maila: Elorrioko Haurreskolaren eraikina osatzen duten eraikuntzak, baita eremua eta ingurua, edo burutzea gura den proiektuaren eraginez ukituta gera daitezkeen beste eraikuntza batzuk (6 puntu gehienez).

Proiektuaren garapenean eragina izan dezaketen funtsezko elementuen (azpiegiturak, indarreko planeamendu, erabilerak, ingurumena, katalogazio-maila, araudi orokorra eta abar) analisi-maila (4 puntu gehienez).

3 azpi-irizpidea: METODOLOGIA ETA TALDE TEKNIKOA

Haztapena: 10 puntu.

Irizpidearen balorazioa egiteko metodoaren deskribapena:

Kontuan izanik honako prestazio hau (“ELORRIOKO HAURRESKOLAK ERAIKINA ERABERRITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA IDAZTEA, KANPO ALDEAREN ERREFORMA BARNE (PATIOA), E1_DEF. PROTOTIPOAREN ARABERA”) egiteko dokumentazioa derrigorrean bete behar diren araudi ezberdinetan zehaztuta badago ere, diseinuko arau tekniko partikularrak eta lizitazio honetako administrazio-klausula partikularren agirian, irizpide honek ez dio begiratuko lanaren edukari, baizik eta garapenak eskatzen duen antolaketari; beraz, azpi-irizpide honetan ezagutzak honen arabera baloratuko dira:

Proiektua gauzatzeko prozesuan esku hartuko duten agenteen antolaketaren egituraren egokitasuna, eta talde teknikoaren optimizazio lanak behar bezala garatzeko eta antolatzeko (4 puntu gehienez). Puntu honetan baloratuko dira besteak beste: dedikazioa, koordinazioa eta eskaintzan proposatutako pertsonalaren antolaketa, kontratuaren xede diren beharrak behar bezala egiteko eta koordinatzeko. Prestazioa egiten den bitartean erantzuteko epeak, hau da, berehalakotasuna. Baita, informazioa bialtzeko era eta kontratuaren esleipendunen eta Elorriko Udalaren artean komunikaziorako proposatutako kanalak edo bideak (4 puntu gehienez). Lan-programa koherente baten aurkezpena eta kalitatea, zeinetan honako hauek zehaztuko diren: epe orokorrak, egin beharreko jarduerak eta egiteko denborak, mugarri nagusiak, jarduera bakoitzaren malgutasunak, hasierako eta amaierako datak eta erabiliko diren baliabideak (2 puntu gehienez).

Talde honen haztapena guztira: 40 puntu.

Aurrera egin ahal izateko, gutxienez 20 puntu lortu beharko dira proposamen teknikoaren balorazioan. Gutxienero puntuazio hau lortzen ez dutenek kanpoan geratuko dira.

B. ZIFRA EDO EHUNEKO BIDEZ BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK: 60 puntu gehienez:

B1 Eskaintza ekonomikoa: 40 puntu gehienez.

Puntuak honako formula hau jarraituta emongo dira:

40 puntu emongo zaizkio prezio ekonomikoenari, eta gainerako eskaintzei ezarriko zaizkien puntuak ateratzeko erabiliko den formula honako hau izango da: eskaintza merkeenaren eta baloratzen den lizitatzailleak aurkeztutako eskaintzaren artean ateratzen den koizientearen emaitza bider irizpideari ezar dakizkiokeen puntuen guztia. Hau da:

$PI = Ob/OI \times 40$

Non:

PI: lizitatzaillearen puntuak

Ob: eskaintza merkeena.

OI: Lizitatzaillearen eskaintza.

B2. KONTRATUA EGIKARITZEARI ATXIKITAKO PERTSONALAREN PRESTAKUNTZARI ETA ESPERIENTZIARI LOTUTAKO KALITATEA 20 puntu gehienez.

Haztapena: 20 puntu.

Formula: Azken 10 urteetan zehar egindako eta amaitutako eraikinen zaharberitze egikaritze-proiektuak idatzi izana baloratuko da kontratako aurrekontua, BEZik barik, 500.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa izan denean: 20 puntu gehienez.

Proiektu hauek kontratuaren proiektura atxikitako pertsonalak egin behar izan du; zehatzago esateko proiektua idazteko proposatutako pertsonak.

Kontuan hartu beharrekoak:

a) Proiektua teknikari batek baino gehiagok idatzi duenean, proiektu horri dagozkion puntuak proiektua idatzi dutenen artean proportzionalki zatituko dira.

b) Egindako zerbitzuak edo beharrak organo eskudunak egindako edo bisatutako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua bada, honek egindako ziurtagiri bidez egiaztatuko da, eta hala egiten ez denean enpresaburuaren deklarazio bidez, egindako prestazioa egiaztatzen duten bere esku dituen dokumentuekin batera; hala dagokionean, ziurtagiri hauek eskumena duen agintariak zuzenean emongo dizkio kontratazio-organoari. Egindako zerbitzuak zehaztu moduan egiaztatzen ez badira, lan hori ez da baloratuko.

c) Erakunde kontratatzaileak egindako ziurtagiriak jasoko du entregatu duen proiektua enpresa lizitatzailerak kontratuari atxiki dion pertsonalak idatzitako proiektua dela. Modu berean zehaztuko du eraikin bat eraberritzeko obra bat dela, hala nola sinatze-eguna, nola obraren zenbatekoa.

d) Proiektua idatzi duena enpresa bat den kasuan, proiektuaren lehenengo orria bisatuta edo egiaztatuta aurkeztuko da, eta bertan idatzi dutenen izen-abizenak agertu behar dira.

e) Azpikontratisten izenean luzatutako ziurtagiriak ez dira baloratuko. Aldiz, ABEE baten izeneko proposamena bada, bai baloratuko dira.

f) Egiaztatutako eta onartutako proiektu bakoitza 4 punturekin baloratuko da, jarraian zehazten den formularen arabera, gehienez 20 puntu. Ziurtagiririk aurkezten ez duen enpresari, edo ziurtagiriek klausula honetan jasotako baldintzak betetzen ez badituzte, hau da, "baliogabetzat" emongo dira eta puntuazioa 0 izango da.

$$P = 20 \times (A.Z.Z.K/5)$$

N.C.V.P.: aurkeztutako ziurtagiri zuzenen kopurua

20.- Eskaintza nabarmenki baxuegiak. (19. klausula)

20.1.- Prezioa dela eta: Ez da baloratuko.

20.2.- Multzoan kontuan hartutako eskaintza dela eta: Bai, honako hauek:

Izaera anormala dela ikustea ahalbidetzen duten parametro objektiboak: honako parametro edo muga hauek ezartzen dira ikusi ahal izateko:

Esleitzeko irizpideak hainbat izanik, kontuan hartuko diren parametro objektiboak honako hauek izango dira, lehiaketara aurkeztutako ontzat jotako eskaintza-kopuruaren arabera:

1.- Lizitatzailerik bakarra aurkezten bada, nabarmenki baxuegia dela esango da honako bi irizpide hauek betetzen dituzten:

- a) Eskaintza ekonomikoa lizitazioaren oinarri-aurrekontua baino % 30 baxuagoa izatea.
- b) prezioarekin lotuta ez dauden gainerako esleipen-irizpideetan dagokion puntuazioa, hauetarako baldintza-agiri honetan ezarritako puntuazioaren guztiaren % 50a baino txikiagoa izatea.

2.- Lizitatzailerik bi aurkezten badira, nabarmenki baxuegia dela esango da honako bi irizpide hauek betetzen dituzten:

- a) eskaintza ekonomikoa beste eskaintza baino % 25 baxuagoa izatea.
- b) prezioarekin lotuta ez dauden gainerako esleipen-irizpideetan dagokion puntuazioa, hauetarako baldintza-agiri honetan ezarritako puntuazioaren guztiaren % 50a baino txikiagoa izatea.

3.- Hiru edo lizitatzailerik gehiago aurkezten badira, eskaintza nabarmenki baxuegia izango da honako bi irizpide hauek betetzen direnean:

- a) Eskaintza ekonomikoa aurkeztutako eta onartutako eskaintza ekonomiko guztien batezbestekoa baino % 20a txikiagoa denean. Hala eta guztiz ere, aipatutako batezbesteko zenbaketarako kanpoan utziko da, eskaintza altuena, honek, aipatutako batezbestekoa %15ean gainditzen badu.
- b) prezioarekin lotuta ez dauden gainerako esleipen-irizpideetan dagokion puntuazioa, hauetarako baldintza-agiri honetan ezarritako puntuazioaren guztiaren % 50a baino txikiagoa izatea.

21.- Aldagaiak onartzea. (23. klausula)

Aldagaiak onartzea: EZ

22.- Adjudikazio-irizpideekin lotuta aurkeztu beharreko dokumentazioa. (24. klausula)

Prozeduran parte hartzeko aurkeztu beharreko agiriak jarraian zehazten diren artxibo elektronikoen edo gutun-azalen barruan aurkeztuko dira.

“B” GUTUN-AZALA: BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ EBALUATU BEHARREKO ESKAINTZA: Bai.

Gutun-azal honetan honako agiri hauek sartu behar dira:

Agiriaren izena: **Memoria.**

Zein irizpideri lotuta dagoen: **Memoria teknikoa.**

Agirian sartu behar den informazioa edo datuak:

1.- DAGOEN DOKUMENTAZIOAREN ANALISIA, lizitatzailleak memoriaren barruan zabalduko duen atal batean “Elorrio Herri Ikastetxearen diagnostikoa. Behinbetiko txostena 17/09/2020 // R1” izeneko agiriaren analisia sartuko du. Agiri hau aurre-proiektu gisa hartuko da bolumenen definizioari buruz, banaketari eta sestrei buruz ari garela.

Helburua ez da izango bertan jaso dena kopiatzea, baizik eta norberaren irakurketa egitea agiria idatzi duenak emon dituen soluzioekin koherentea izango dena, balorazio irizpideetan oinarrituta analisisan sakontzeko. Proposamen grafiko bat aurkeztu ahal izango da DIN A3 formatuan, alde batetik eta zenbatuta. Dokumentazioaren gaineko analisiaren proposamen grafikoa folio bat gehiago izango da eta horrela hartuko da.

2.- INGURUA EZAGUTZEA ETA EREMU BARRUKO ERAIKINAK, lizitatzailleak memoriaren barruan zabalduko duen atal batean proiektuak ukituko dituen eraikinen eta azpiegituren gaineko analisi bat aurkeztuko du, Elorrioko Haurreskolak eremuaren eta inguruaren analisia, hala nola proiektuaren garapenean eragina izan dezaketen funtsezkoak izango diren elementuak. Dokumentazio grafikoa aurkeztu ahal izango da DIN A3 formatuan, alde batetik eta zenbatua. Inguruaren eta azpiegituren gaineko dokumentazio grafikoa folio bat gehiago izango da eta horrela hartuko da.

3.- METODOLOGIA ETA TALDE TEKNIKOA, lizitatzailleak honako dokumentazio hau sartuko du:

Lan-programa bat honako guzti hau jasoko duenak: epeak, egin beharrekoak, mugak, malgutasunak, hasierako eta amaierako datak, erabili beharreko giza baliabideak, iraupenak eta abar.

Lan-programa hau DIN A3 formatuan aurkeztu ahal izango da marra-grafiko bat badu, alde batetik idatzita eta zenbatuta badago. Lan-programa hau orri bat gehiago izango da.

Gainera, beharra zuzen egin ahal izateko kontratuan esku hartuko duen pertsonalaren dedikazioa, egitura eta itxura aurkeztuko du, hala nola esku hartuko duten agenteen eta erantzun epeen artean proposatutako komunikazio bideak edo kanalak.

Luzapena: Lizitatzailleak hiru azpi-irizpideak garatuko duen memoria bat aurkeztuko du. Honek, gehienez DIN A 4ko 30 orri edukiko ditu (3 DIN A3ko orriak ezik, hauek, onartuko diren gehienezko 30 orrietatik 3 orri gehiago izango dira) alde batetik idatzita (edo 15 orri, alde bietatik idatzita badaude), zenbatuta, Arial 12 letra, eta 14 puntuko gutxieneko lerroartea.

“B” gutun-azalean eskaintza ekonomikoarekin lotutako dokumentuak edo datuak sartuz gero, edo esperientziarekin lotutako kalitatea edo beste irizpide batzuk modu automatikoan ebaluatzeko diren irizpideak formula bidez aplikatzekoak, lizitatuak aurkeztutako eskaintza atzera botako da.

Atzera botako dira baita orri-kopurua dela eta, neurriak eta formatua direla ezarritako gehienezko mugak gainditzen dituzten lizitatzailen memoriak.

“C” GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUAGARRIA DEN ESKAINTZA.

Gutun-azal honetan honako agiri hauek sartu behar dira:

Eskaintza ekonomikoa II ERANSKINEko eredian.

Baldintza-agiri honetako 19.B.2 KLAUSULAN agertzen den dokumentazioa, ERAIKINAK ERABARRITZEKO EGITARITZE-PROIEKTUAK idatzi dituela egiaztatu ahal izateko.

23.- Irizpide subjektiboen balorazio-organoa. (25. klausula)

Irizpide subjektiboak: EZ

24.- Betearazteko baldintza bereziak (11. klausula)

- Betearazteko baldintza bereziak (SPKLaren 202.2 artikuluan aurreikusita): 31 klausulan agertzen direnak.

25.- Kontratua egikaritzea (15. klausula)

Aukera, izaera berezia kontuan hartuta zatiak edo beharrak lizitatzailak berak edo ABEEan sartutako parte-hartzaile batek egiteko: EZ

26.- Azpikontratazioa (38. klausula)

Azpikontratazioa: Bai. Eskaintzan azp-kontratazioaren xedea zehaztu beharko da eta azpikontratatu den pertsona fisikoa edo juridikoa identifikatu beharko da.

27.- Kontratuaren lagapena. (37. klausula)

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak kontratistak hirugarren bati laga ahal izango dizkio: Ez.

28.- Administrazio-klausula partikularren agiriak aldaketak. (45. klausula)

Aldaketak: Ez.

29.- Etetea. (46. klausula)

Kontratuaren etetea dela eta kalte-galerak kontratistari ordaintzea: SPKLaren 208 artikulua xedatzen duenarekin bat.

30.- Zigorrak (Klausulak 11, 32, 36, 38, 41 eta 44)

Atzerapen erruduna denean: BAI

▶ 100,00 € / baliadun eguneko

31.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak (47. klausula)

32.- Berme-aldia (22 eta 52 klausulak)

Bai. Urtebete beharraren jaso egunetik edo onarpen-egunetik. Epe honetan zehar, Elorrioko Udalak egiaztatu ahal izango du egindako beharra egikaritzeko eta betetzeko preskripzioetan jaso moduan egin dela.

33.- Konfidentzialtasuna. (33. klausula)

Iraupena: 5 urte informazioa ezagutzen denetik.

34.- Baldintza-agiriaren gaineko informazio gehigarria eskatzeko epea. (18. klausula)

Lizitazio-prozeduran interesatuta daudenak baldintza-agirien eta gainerako dokumentazio osagarriaren gaineko informazio gehigarria eskatu beharko dute proposamenak aurkezteko azken eguna baino bost egun lehenago.

35.- Kontratatzailearen profila. (18 eta 25 klausulak)

Elorrioko Udaleko kontratatzailearen profilera sartzeko helbidea:
http://www.elorrio.eus/eu-ES/Udala/Idazkaritza/Kontratatzailearen_profila/Orrialdeak/default.aspx

ADMINISTRAZIOA /
EGUNA ETA SINADURA

ADOS:
ESLEIPENDUNA
EGUNA ETA SINADURA



Elorrioko udala

II ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

.....jaunak/andreak, NAN (bere izenean) edo (ordezkutzen duen enpresaren izenean) IFZ duena, eta helbide fiskalan kalea zk.; adierazten du, Kontratatzailearen Profileankon n argitaratutako iragarkiaren barri duela, hala nola kontratuaren esleipenerako eskatzen diren babesaren, eta baldintzen, betebeharren eta obligazioena, eta konpromisoa nire gain hartzen ditudala adierazitako guztiak, honako prezio honetan (zifrak eta letrak idatzi):

.....
hori guzti hori, deialdia arautzen duten Preskripzio Teknikoen eta Administrazio Partikularren Baldintza-Agirietan xedatutakoarekin bat. Eta aitortzen dut baldintza-pleguak ezagutu eta osotasunean onartzen ditudala. Eskaintza hau prestatzerakoan kontuan hartu dira indarrean dauden xedapenetik eratorritako honako betebeharreko hauek: zerga-sistema, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero berdintasuna, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko eta lan munduan txertatzearena, eta desgaitasuna duten pertsona kopurua edo ehuneko zehatz bat dutenak kontratatzekoa.

Jakinarazpen telematikoetarako posta helbidea honako hau da:

.....
.....

Eguna eta lizitatzzailearen sinadura

DAGOKION KONTRATAZIO-ORGANOARI ZUZENDUTA

III ERANSKINA

KONTRATAZIO PROZEDURETARAKO BERME-EREDUA. ABAL-EREDUA

Erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izen soziala) _____ IFZ _____ helbidea duenak (jakinarazpenak eta errekerimenduak egiteko) _____ kalea/plaza/etorbidea/ _____ PK _____, eta bere izenean (ahaldunen izenak eta abizenak) _____ egintza honetan behartzeko nahikoa ahalmen dutenak.

ABALA EMOTEN DIO

_____ ari Abala jasotzen duenaren izen-abizenak edo izen soziala _____

.....IFZ _____, honako hauek xedatzen dutenaren ondorioz: (berme hau eratzeko ezartzen dituen araua/k eta artikulua/k) _____ honako betebeharrak erantzuteko: (zehaztu kontratuaren xedea eta bermatuak bereganatzen duen betebeharrekoa)

Elorriko _____ Udalaren _____ aurrean _____ euro (letran) _____ (zifran).

Erakunde abal-emoileak bere erantzukizunpean aitortzen du Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela. Abal hau solidarioki emoten da obligazio nagusiarekiko, eta eskusio-onurari espresuki uko egiten dio, eta konpromisoa hartzen du Elorriko Udalak egiten dion lehen errekerimenduan ordaintzeko kasuan kasu, administrazio publikoaren kontratazioari buruzko araudian eta hura garatzen duten arauetan aurreikusitako baldintzen arabera. Abal honek balioa izango du Elorriko Udalaren organo eskudunak ezeztatzen baimena emoten ez duen bitartean. Abal hau gaurko egunean inskribatu da udal diruzaintzan eta honako zenbaki hau du: _____

.....(lekua eta data)

.....(erakundearen izen soziala)

..... (Ahaldunduen sinadura)

IV ERANSKINA

KONTRATAZIO PROZEDURETARAKO BERMEEN EREDUA. KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRI EREDUA

_____ ziuurtagiri zenbakia
(1) _____
(aurrerantzean, aseguratzailea, helbidea _____
duenak, eta IFZ _____ behar moduan ordezkaturata (2)
_____ jauna/andrea, egintza honetan
behartzeko nahikoa ahalmen duenak.

ASEGURATU EGITEN DU

(3) _____ IFZ
_____, aseguruaren hartzaile gisa Elorriko Udalaren aurrean,
aseguraturata aurrerantzean, (4) _____ euro arte, azaroaren
8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontraturata, eta kontraturata arautzen duten
administrazio-klausula partikularren agirian jaso moduan eta baldintzetan (5)
_____ berme gisa (6) _____ aseguruaren
aurrean adierazitako arau eta gainerako administrazio-baldintzen arabera sor
daitezkeen betebeharrak, zigorrak eta gainerako gastuei erantzuteko.

Aseguraturata bere erantzukizunpean aitortzen du Administrazio Publikoen
Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 57.1 artikuluan aurreikusitako
baldintzak betetzen dituela.

Prima ez ordaintzeak, bakarrra, lehenengoa edo hurrengoa izan, ez dio
aseguraturatai kontraturata suntsiarazteko eskubiderik emongo, eta ez da irauungiko, ez
aseguraturatalearen estaldura etengo, ez eta bere betebeharrak askatuko ere,
aseguraturataleak bermea gauzatu behar badu.

Aseguraturataleak ezin izango du aseguruaren aurka jarri aseguru-hartzailearen
aurka egoki dakizkiokeen salbuespenak.

Aseguraturataleak bere gain hartzen du Elorriko Udalaren lehen
errekerimenduan aseguruari kalte-ordaina emoteko konpromisoa, azaroaren 14ko
3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen
Legearen testu bateginean ezarritako baldintzetan.

Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da Elorriko Udalak hura ezeztatze
edo itzultze baimena emon arte, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko
9/2017 Legean eta legeria osagarrian ezarritakoaren arabera.

.....n, 2021ekoren(e)(a)n.

Sinadura:

Aseguratzailea

EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- (1) Aseguratuaren izen soziala osorik idatziko da.
- (2) Ahaldunaren edo ahaldunen izen-abizenak.
- (3) Aseguratuaren izena:
- (4) Seguruaren prezioaren zenbatekoa letra idatzita.
- (5) Kauzioaren xede den kontratua banaka identifikatzea (izaera, mota, eta abar).
- (6) Bermea zehaztea, hau da, behin-behinekoa bada, behin betikoa bada, eta abar.

V ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, BEHARGINEN EHUNEKO BIA DESGAITUA IZAN BEHAR DUELA BETEBEHARRA BETETZEN DUELA AITORTZEKOA EDO BESTE NEURRI BATZUK HARTUKO DITUELA ADIERAZTEKOA; ETA LAN, GIZARTE ETA EMAKUMEN EGA GIZONEN BERDINTASUNAREKIN LOTUTA INDARREAN DAGOEN ARAUDIAK EZARTZEN DITUEN BETEHARRAK BETETZEN DITUELA ADIERAZTEKOA

_____ jauna/andrea _____ NAN
zenbakiarekin _____ elkartearen izen eta ordezkapenean,
_____ IFZ duenak, _____ izena
duen kontratazioan parte hartzeko _____ k deitu duena:

ADIERAZTEN DUT, nire erantzukizunpean:

- Ordezkatzen dudak enpresak behargin hauek dituela: (Markatu dagokion laukitxoak)

- 50 beharginetik behera
- 50 behargin edo gehiago (markatu dagokion laukitxoak)

(Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen den, betebeharra betetzen du eta beharginen artean, gutxienik %2 desgaituak dira.

(Apirilaren 8ko 364/2005 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasunen bat duten langileen alde kuota-kopuru jakin bat erreserbatzeari buruzko salbuespenaren betepena arautzeko, aurreikusten dituen neurri alternatiboak betetzen ditu.

- Ordezkatzen duen enpresak betetzen dituela lan eta gizarte arloan indarrean dauden xedapenak.

- Ordezkatzen duen enpresak: (Markatu dagokion laukitxoak)

- 250 beharginetik gora dituela eta Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 372007 Lege Organikoaren 45 artikulua 2 atalak xedatzen duena betetzen duela, berdintasun plan bat egin eta aplikatzeari buruzkoa.

- 250 beharginetik behera dituela eta Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 372007 Lege Organikoaren 45 artikulua 3 atalak xedatzen duena betetzen duela, berdintasun plan bat egin eta aplikatzeari buruzkoa.

- Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45 artikulua 5. Atalak xedatzen duena aplikatuz gainerako enpresentzat borondatezkoa izango da berdintasun planak egin eta ezartzea.

Eguna eta sinadura

DAGOKION KONTRATAZIO-ORGANOARI ZUZENDUTA

VI. ERANSKINA

KAUDIMENA KANPOKO BITARTEKOEKIN INTEGRATZEKO KONPROMISO-EREDUA

_____ jauna/andrea _____ NAN
zenbakiarekin _____ elkartearen izen eta ordezkapenean,
_____ IFZ duenak, _____ izena
duen kontratazioan parte hartzeko _____ k deitu duena:

ETA

_____ jauna/andrea _____ NAN
zenbakiarekin _____ elkartearen izen eta ordezkapenean,
_____ IFZ duenak:

Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, 75 artikuluan xedatzen duenarekin bat, honako konpromiso hauek hartzen dituztela:

- _____ erakundearen eskura jartzen duen kaudimena edo bitartekoak _____ ren alde honako hauek direla:
 -
 -
- Kontratuak irauten duen denbora guztian konpromiso honetan deskribatu diren kaudimena edo bitartekoak eskura egongo direla.
- Deskribatutako kaudimenaren edo bitartekoen erabilera efektiboa ez dagoela baldintzatuta edo mugatuta.

Eguna
Lizitatzaillearen sinadura
Beste erakundearen sinadura

DAGOKION KONTRATAZIO-ORGANOARI ZUZENDUTA